




Euskal mendien sekretuak agerian utzi ditu telebistan Jon Abasolo Salvador zuzendari algortarrak. ▶15

Maialen Sancho Galan gazte algortarra Sahararen aldeko Ereiten taldeko kidea da; pasa berri den udan errefuxiatuen kanpamentu batean egon da. ▶04



hiruka

Uribe Kostako astekaria



73. zenbakia

2016ko
urriaren 20tik
urriaren 26ra arte

Homofobia salatuta dute



Iazko eraso homofoboa «liskar soil bat izango balitz bezala» epaitu dutela kritikatu du Uribe Kostako Kitzikan elkarteak. ▶16-17

SAKONEAN BERANGO

Ikurrinaren alde

Aurten 40 urte beteko dira Simon de Otxandategi taldeak lehenengo aldiz ikurrinagaz dantzatu zuenetik. ▶22-23



HERRIZ HERRI PLENTZIA

Senidetzea, martxan

Placentia eta Plentzia, Kanadako eta bertoko herri biak senidetzeko prozesua abiatu dute daborduko. ▶9



KULTURA GETXO

Mugaz gaindi, hangoak hona

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak egingo dira Getxon, zazpigarren aldiz. Kultura ez ezik, politika eta hezkuntza ere jorratuko dituzte.

Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundeak Getxoko Udalagaz harremanetan daroatza 12 urte baino gehiago; hartu-eman horretatik sortu zen Iparra Galdu Gabe programa. Ekimen hori bi urtean behin egiten da eta helburua du Ipar Euskal Herria Getxon ezagutaraztea. Urriaren 26tik azaroaren 20ra antolatuko dituzte ekitaldiak, hainbat esparruren gainekoak eta eskaintza zein modu askotarikoak izango dira. ▶11

Nazioarteko Putxera Kriteriumagaz indabarrinez beteko du Astrabudua Takolos irrati-klubak, aste-akabuan. ▶5

Armintzan kokatu dute, Bimepen, olatuen mugimendua baliatuta energia elektrikoa sortzeko prototipoa. ▶8

Eskualdeko bost bertsolari lehiatuko dira aste-akabu honetan, Bizkaiko Txapelketako kanporaketa bietan. ▶11

Hamar urteko ibilbideari agur esango dio Sopelako Aitxu! euskara-taldeak, zapatu honetan; kantaldia egingo dute. ▶12

Getxoko Udal Gobernuaren Plana 2016-2019 Legegintzaldirako

Plana kudeaketarako tresna da, eta helburu nagusia da «sozialki kohesionatuta» egongo den udalerria lortzea, Gobernu Taldeko arduradunek azaldu dutenez. Udal-talde politiko guztiei aurkeztu diete, proposamen moduan.

Gobernu Taldeak 2016-2019 Legegintzaldirako Plana aurkeztu du. Kudeaketarako tresna da hori, eta horren helburu nagusia da «sozialki kohesionatuta» egongo den udalerria lortzea, arduradunek azaldu dutenez. Plana udal-talde politiko denei aurkeztu diete, proposamen legez. Zeharkako 9 ardatzek eta 8 helburu estrategikok osatzen dute oinarritzko dokumentua; eta zehaztutako 130 ekintza baino gehiago dituzte «egitate enblematiko» bezala. Azken horiek, «auzokideentzako giltzarri dira» Gobernu Taldearen ustez, zerbitzuak ematean eta Udala antolatzean izan dezaketen eragina dela-eta.

Imanol Landa alkateak adierazi duenez, «Legegintzaldiko plan berri honek, funtsean, EAJ eta PSE-EE alderdiek sinatutako gobernuaren akordio programatikoa du oinarri, eta horrenbestez, bakoitzaren hauteskunde-programetan oinarritzen da». Landak azpimarratu du, «helburu eta ekintza zehatzak eta errealistak» dituen plana dela; «baliabide publikoen kudeaketan zorrozatasuna nahiz seriotasuna» bermatzen dituela eta «gure udalerraren beharretara zein errealitate sozialari egokituta» dagoela; «bereziki» nabarmentzen dituela «gizarte-politikak, kalitatezko oinarritzko zerbitzuei eustea, ekonomia sustatzea, euskara, kultura, kirola eta ariketa fisiko osasungarriaren aldeko apustua, baita, garrantzitsua den aldetik, herritarrekin komunikazio, gardentasun eta parte-hartzeko



info+: www.hiruka.eus

politiketan aurrera egitea ere». José Luis Landa PSE-EEko zinegotziaren arabera, «konpromiso garrantzitsuak jaso eta nabarmentzen dituen dokumentu on bat da; horietako batzuek alderdi bi hauen arteko aurreko akordioei dagozkie eta gizarte politikan, herritarren parte-hartzean eta udalerrira iraukorra izatean aurrera egiten du».

EH Bilduren ustez, Legegintzaldi Planak hartzen dituen proposamenak hamaika erronka barnebiltzen ditu gaur egun dauden hainbat problematikari aurre egiteko». Halere, aurkeztutako kontuak «benetan» betetzea eskatu du: «paperean agertzen diren kontu ugari askotan ez dira gauzatzen, hori da arazoa». Horien artean, etxebizitzaren

arazoaz gainera, HAPO berria egitea nabarmendu dute, «8 urte geldirik daramatza, bada garaia berria egiteko. Badirudi Gobernu Taldeak ez duela borondatek benetako HAPO bat egiteko». Etxebizitzaren alorrean, oster, eskaintako alternatibak «xumeak» direla deitoratu dute. Ciudadanosek ere modu positiboan baloratu du proposamena, baina argi-ilunak ere badituela aitortu du, hala nola herritarren parte-hartzeari, etxebizitza politikari, segurtasunari eta turismoari dagokienez. Era berean, kritikatu du politikariek ez egotea ingelesaren erabilera sustatzeko. Bestalde, PP eta GUK alderdiakaz harremanetan ipini arren, ez dute iritzirik helarazi, momentuz. ◀

Ildo nagusi batzuk

Gizarte kohesionatuago baterantz joatea

«Pertsona Nagusiekiko Hiri Adiskidetsuak» zahartze aktiboko proiektuarekin bat egitea.

Etxebizitza alokatzeko udal politika ezartzea. Etxebizitza hutsaren azterlana. Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berria egitea.

Jarduera ekonomikoa egiteko aukerak eskaintzen dituen herria izan dadin aurrerapausoak ematea

Getxo udalerriko esparru ekonomiko estrategikoak dinamizatu eta garatzeko bultzada ematea.

Enpresei zuzendutako zerbitzuak indartzea (enpresa mintegi berria Benturillan...).

Getxo gozatu

Fadurako Kirol Parke Publikoa irekitzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzea

Berdintasunerako IV. Plana egin eta garatzea.

Gobernantza: gardentasuna, parte-hartzea eta Open Data

Gobernu Irekiko politikak bultzatzea.

Euskararen erabilera normalizatzeko aurrerapausoak ematea eta euskal kultura bultzatzea

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) ebaluatzea eta garatzea, gizarte eragileakaz eta elkarteekin sareaz (euskalgintza) elkarlanean eta koordinazioan.

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu
artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Getxo

Estudio.k taldeak 30 urteak ospatuko ditu

Algortako diziplina askotako taldeak urtemuga-jardunaldia egingo du barikuan.

Algortako Estudio.k arkitektura-taldeak bere 30. urteurrena ospatuko du barikuan, hilaren 21ean. Jardunaldia eguerdiko 13:00etan hasiko da, Igeretxe hotelan. Ordu horretan ekitaldiari hasiera eman, eta ondoren, Kepa Arrieta estudioaren koordinatzaileak horren eboluzioaren eta etorkizunaren errepaso egingo du. Horren ostean, 13:30ean, hirigintza, ingeniari eta zibila eta arkitektura eremuetan arrakasta izandako 3 proiektu aurkeztuko dituzte. Horretarako, hainbat gonbidatu izango dituzte, hurrenez hurren,

honako hauek: Matsariako industria-gunearen nondik norakoak Aurkene Niño Sprilurreko kideak eta Kepa Arrietak azalduko dituzte; Mungiaiko LZParen inguruan arituko dira Idoia Garai Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria eta Aitor Sarria Estudio.k-ko kidea; azkenik, Ignacio Ruiz de Godejuela EHUko kidea eta Iñaki Arrieta Estudio.k-ko beharginak Gasteizko CICSH ikerketa-zentroaren inguruan berba egingo dute. Horren akabuan, 13:50ean, Trebekiko kide Javi Salcedok *Origen y futuro de las organizaciones de ner group* berbaldia eskainiko du. Jardunaldiari amaiera emateko, mokadutxoak egongo dira, 14:00etan. Aipatutako guztiaz gainera, Estudio.k taldeak 30 urteotan egindako lanen erakusketa ere egongo da ikusgai jardunaldiak iraun bitartean. ◀

Antzezaleak taldeak antolatutako pintura-lehiaketa, domeka honetan

Kanpoko pintura-lehiaketa egingo dute domekan, hilaren 23an, Algortan. Antzezaleak taldeak hamargarrenez antolatuko du aurten. Lehiaketaren euskarriak taldearen egoitzan sinatuko dituzte, Arene kaleko 8. zenbakian, 08:30etik 10:30era. Lanak, berriz, 15:00ak arte aurkeztu ahal izango dira, San Nikolas plazan. Margotzeko aukeratu dituzten gaiak Getxoko udalerriaren ingurukoak izan beharko dute; pinturak antolatzailerik adierazitako lekuetan egitea beharrezkoa izango da. Kategoria bi egongo dira: 13 urtetik beharakoak eta nagusiak. Azken horretan lau sari egongo dira; 1.200 euro, 1.000 euro, 800 euro eta 500 eurokoak, hurrenez hurren. Txikien artean arte ederretako materiala banatuko dute. Sari-banaketa 18:00etan izango da, San Nikolasen. ◀

izen-emateak: antzezaleak@gmail.com

Berangoko merkatalguneak bertokoarengan eragingo du?

Getxoko Auzokideok elkarteak uste du Berangoko Landaida inguruan eraikitzen dabiltzan merkatalguneak eragina izango duela Getxon. Berangoko alkateak aurretik adierazi zuen proiektu horrek ez lukeela eragin handiegirik izango udalerririk horretako merkataritxiaren. Ostera, Getxoko Auzokideak elkarteak salatu du han ez dagoela bertoko edo lekuko ekonomia-eragilerik, «ez da ezer geratzen, tabernak izan ezik». Ziurtatu duenez, Getxoko merkataritxiak izango dira horren eragina nabarituko dutenak, «baita Barrika, Sopela eta Urdulizekoak ere». Merkatalgunea eraikitzeko gestioak egiten dituen enpresa «Berango, Getxo, Bizkaia eta Euskadi gobernatzeko alderdiagaz» lotuta dagoela salatu du, eta horiek inguruko lur guztia «porlanez bete» gura izateaz kezatu da. ◀

IPARRA GALDU GABE Emakumez beteriko egunak.

Dokumentalak
Neskatoak + Dominica

Urriak 26, 19:30
Algortako Kultur Etxea

Literatura-solasaldia
Baionak ez daki
Bea Salaberri

Urriak 27, 19:30
Torrene erakusketa aretoa

Ezpeletako piperrak.

Ezpeletako piperrekin egindako produktuak.
Kontxi Urdaitegia (Algorta) / Uniduo Selección (Areata)

Dantza ikuskizuna
Herrikoa
Zarena Zarelako taldea

Urriak 29, 12:30
Algortako Geltokia plaza

Kantu jira
Kukuxta txaranga

Urriak 29, 13:00
Algortako Geltokia plaza



Urriaren 27ko pintxo-potes.
San Nikolas ibilbideko tabernak / Taberna Berri / Lainoa / Gure Etxea / Arotza.

Mahai ingurua
Mesa redonda
Herria eta hizkuntza
Hélène Charritton - Battitta Boloqui

Azaroak 16, 19:30
Algortako Kultur Etxea

Itzal antzerkia
Ozeanoaren konkista
Haize Othondo

Azaroak 20, 11:00/12:30
Algortako Kultur Etxea

Kontzertua
Maddi Oihenart + Leun

Azaroak 20, 19:30
Areatako Musika Eskola





Zabalera

JOSEBA
SANTXO URIARTE
Filologoa, idazlea, ikertzailea

Euskal hitza
dantzatu
beharra

Hartu arnasa, irakurle. Ahaztu eguneko gora-beherak eta konektatu gure arbasoek utzi zizkiguten euskal doinu zoragarriekin. Kopla-doinua gogoratu eta hasi irudimenean dantzan... Doinua: *Aitte San Miguel Ijurreta*ko...

Inork al daki zer gertatu zen orain aste bi Algortan? Jende guztia dantzan kalean, kantuan eta bertsotan!

ALBEko jende saltsazaleak antolatu zuen, antza; egiten duten bigarrena da, izena: Hitzaren Dantza!

Horra zer dugun jaialdi hori: egun pasa txit alaia, bertsoek, dantzek eta doinuek jartzen digutena gaia!

Abarkak jantzi eta dantzara: «aintzina», «dobla», «erdizka»... herritik jaso dugun kulturaren herria protagonista!

Kalean gora, kalean behera, dulun-dulunka joaldunak, azalpen denak euskara hutsez eta pozik euskaldunak!

Dantza-taldeak: Itxas-Argia, Otxandategi, Agurra, hor Berantzagi, han Elai alai, euskal dantzari egurra!

Bazkari eder baten ostean bertsolariak jotake, Fredi ta *Abarkas* isildu barik guztiak koplatu arte!

Dangiliskeko musikariak eta ostean Oxabi, herri guztia gogor ekiten Dantzari eta Hitzari.

Udala alde, Aldundia be, inortxo baztertu gabe; gure kultura-adierazpenak horren egarrarian daude!

Hitzaren Dantza ez dadin izan egun batekoa edo, hitza dantzatu dezagun denok egunero-egunero!!! ◀

Getxo

«Dena soberan dudala sentitu dut bueltatzean»

Maialen Sancho Galan (Algorta, 1996) Sahararen aldeko Ereiten taldeko kidea da; EHUKo ikasle-talde batek osatzen dute. Errefuxiatu-kanpamenduetan egon zen, udan.



Maialen Sancho Galan gazteak urtebete daroa Ereiten taldean beharrean.

IKER RINCON MORENO ▶

Orain lau urte sortu zuten EHUKo Gizarte Hezkuntzako hainbat ikaslek Mendebaldeko Sahararen aldeko talde bat: Ereiten. Maialen Sancho Galan algortarrak bertan parte hartzen du. Urtean hainbat ekimen egin dituzte Saharako errefuxiatuen egoera ikusarazteko eta materiala batzeko; pasatu berri den udan kanpamendu bat bisitatu dute.

Zelan eta zergatik bururatu zitzaizuen Ereiten taldea sortzea?

Saharar neska bat zegoen Gizarte Hezkuntza gradua ikasten. Horrek familia Mendebaldeko Saharan du, eta bertako egoera zein den jakinda, horiei nolabait laguntzeko taldea sortzearen proposamena aurkeztu zien klaseko kideei. Hala, Ereiten sortu zuten.

Noiztik parte hartzen duzu horretan?

Aurten hasi naiz proiektuan parte hartzen. Klaseko batzuk bertan lanean ibili ziren aurretik, eta klasez klase egon ziren proiektuaren nondik norakoak aurkezten eta Mendebaldeko Sahararen egoera azaltzen. Horren ondorioz, horiekin lan egitea erabaki nuen, eta horretan nabil orain.

Udan Saharako errefuxiatuen kanpa-

mendu batera joan zineten. Zer egin zenuten bertan?

Bai, Boujador-en egon ginen, Mendebaldeko Saharan. Aurrekoetan ere bertara joan izan dira, eta aurten abuztu eta irail bitartean joan ginen. Aste bi eta erdi eman genituen kanpamenduetan. Goizetan berreraikitze lanak egiten genituen, uholdeek sunsitutako etxebizitzak konpontzeko. Arrastietan, berriz, umeekin batu eta tailerrak egiten genituen, hala nola aurpegiak margotu, pailazoak eta jolasak. Halaber, futbol-lehiaketa bat egiten ahalegindu ginen, umeekin eta nagusiekin batera. Halere, jendea falta zenez, ezin izan genuen aurrera eraman. Horrez gainera, urte osoan bildutako material guztia banatu genuen. Inguruetara ere hainbat bisita egin genituen.

Zelan sentitu zinen bertan?

Etxera bueltatu nintzenez dena soberan nuela sentitu nuen. Bertan ez nuen ezer behar, oinarrikoarekin bizi ginen; ura bazegoen dutxatzeko ondo, baina ez zegoenean ez zen ezer gertatzen. Umeak ere oso kontziente dira bizi duten egoeraz; itzela da. Bertako jendea ere oso jatorra eta eskuzabala da. Ez dute ezer ere ez, eta duten apurra emateko gai dira.

Urtean hainbat ekintza egin dituzue

materiala jasotzeko, ondoren errefuxiatuei helarazteko. Zelan harrera izan duzue egindako ekintza horietan? Erantzunik egon da?

Eskoletan batutako materiala eta ume txikiak jaso gura izan dugu batez ere; nagusientzako arropa badago, baina 0 eta 10 urte arteko neska-mutilentzako baliabideak oso eskasak dira. Horrez gainera, sendagaiak ere batu ditugu, baina zailtasun nahiko izan ditugu horretarako. Dirua batzeko, ostera, poltsak, metxeroak eta jaialdiak egin ditugu Arrigorriagan, Bilbon eta Gasteizen. Jendearen harrera oso ona izan da.

Kanpamendutik bueltatu ostean, zer egingo duzue aurrerantz?

Proiektua bultzatu zuen saharar neska gidatzen zuen taldea eta berak ditu kontaktu guztiak. Kontua da karrera amaitu duela dagoeneko, eta orain Mallorcan dagoela master bat egiten. Hortaz, hasiera batean taldekideok ez genuen oso argi ikusten proiektuarekin segitzea... Halere, bidaia egin ostean, argi ikusi dugu oraindik asko dagoela egiteko eta aurrera egin behar dugula. Hori dela-eta, orain arte egin bezala, ahal dugun guztia egingo dugu proiektua zabaltzeko, Mendebaldeko Sahararen egoera jendarteratzeko eta kontzientzia pizteko. ◀

Erando

Herritarren berbetan

Ehunka auzokidek iritzia eman dute Erandioko Udalak martxan ipinitako prozesu parte-hartzailean; kontuan hartuko dituzte.

Irailaren 27tik urriaren 4ra, Erandioko Udalak hainbat bitarteko ipini zituen herritarrek aurrekontuetan parte har zezaten. Interneten galdetegia eskegi zuten, auzoetan postontziak ipini zituzten eta aurreko informazioa eman zuten kaletan jarritako informazio-karpetan.

Horren eraginez, 180 pertsona hurreratu ziren karpetara: 78 Altzagan, 69 Astrabuduan, 21 Lutxanan eta 12 Erandiogoikoan. 180 auzokide horiek 347 inkesta bete zituzten, haietako 280 Astrabuduan. Gainera, Internetez beste 157 heldu ziren, postontzietan 52 utzi zituzten eta, azkenik, beste 11 udal-bulegoetan utzi zituzten. Denera, 567 izan ziren jasotako ekarpenak.

Ekarpenetan emandako datuen arabera, esan daiteke emakume erandioztarrak gizonezkoak baino parte-hartzaileagoak izan direla, haiek idatzi baitituzte ekarpenen %65,91. Era berean, parte-hartzaile gehien adin-tartea 38 eta 45 urte bitartekoa izan zen. Auzoka, altzagarrak izan ziren parte-hartzaileen %57,1; astrabuduarak, %27,7; beste auzoetakoak %15,2 izan ziren.

Auzoa zelan hobetuko luketen galdetuta, Astrabuduan 619 erantzun eman zituzten. Prozesu parte-hartzailearen gaineko txostenean Ibatuz SL



Ignacio Aldekoa ikastetxea hobetzea da eskari nagusietako bat.

enpresako arduradunek azaldu dutenez, «Astrabuduan jasotako inkesta-kopuru garrantzitsuaren azalpena da parte-hartzearen karpan ekarpen asko eman zituztela, beren-beregi Ignacio Aldekoa ikastetxearen atsedengunea estaltzeko [284 ekarpen] eta kirol-instalazio berriak ipintzeko [249 eskatzen]». Aipatzekoa da 14 ekarpen besterik ez zirela izan aparkalekuak hobetzeko. Altzagari dagokionez, Uda-

lari eskatu zioten neurriak hartzea Tartangan, Ategorrin eta Felix Ortunen (40), parkingak hobetzea (21) eta gazteen eta umeen aisialdia (21), besteak beste. Lutxanan gai nagusia «espaloiak eta uholdeak» (15) izan zen. Erandiogoikoan, errepideak, estolderia eta argiteria (8). Azkenik, Enekurri-Faoetan, kultura eta zaharberritzea eskatu zituzten; Arriagan, bidegorria eta estolderia. ◀

Langabezia borrokatzean, adostasuna

Udallerri-mailan, sail bakoitzaren lehentasunak zeintzuek izan behar duten galdetuta, auzotarrek argi daukate: erantzun dutenen %70,2k uste du lehenetsi behar dutela erandioztarrak kontratatuzko enpresei laguntzak ematea. Horren ostean, dependentzia-egoeran daudenei etxe etxeko laguntza emateak sortzen du adostasun gehien (%66,3). Apur bat atzerago daude txakurren parkeak birpentsatzea (%62,1), udal eraikinetan wifia ipintzea (%60,8) eta gazteei udal-lokalen bat uztea (%58,6). ◀

Bideen inbentarioaren bigarren fasea ikusgai ipini du Udalak

Erandioko Udalak informazio publikorako ipini du eskuragai «Segunda Fase del Inventario de Caminos de Titularidad Pública de Erandio» txostena. Dokumentu hori Sendo enpresak idatzi du; bertan, ikertutako bideen fitxak eta planoak jaso dituzte, kartografia historikoan, landa-azterketan eta hainbat lekukotasunetan oinarritutakoak. Interesdunek dokumentua azter dezakete udal-bulegoetan abenduaren 15era arte. Era berean, alegazioak, iradokizunak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Txosten-egileek eta udal-arduradunek berbaldia emango dute azaroan. ◀

Cabarcenora joateko txangoa antolatu du LKT kultur taldeak

Kantabriako Cabarceno natura-parkea ezagutzeko txangoa egingo du Lutxanako Kultur Taldeak, datorren azaroaren 6an, domekan. Egunpasa hori goizeko 09:00etan hasiko da, ordu horretan hartuko baitute autobusa Lutxanako autobus-geralekuan. Cabarceno parkera bisita egin ostean, Lutxanara bueltatuko dira 19:00ak aldera. Bisitariak parkean bazkalduko dute, bakoitzak bere janaria eroanda. Izen-ematea urriaren 30era arte edo 50 lekuak bete arte egin daiteke, elkartearen telefonora deituz. Prezioak honakoak dira: 0 eta 3 urte bitarteko umeak, doan; 4 eta 12 bitartekoak, 6 euro; gainontzekoak, 15 euro. ◀

izen-ematea: 675 082 662

Ondarearen Europako Jardunaldiak izango dira Altzagan zapatuan

Zapatuan, hilak 22, bisitaldi gidatua izango da Altzagan, Ondarearen Europako Jardunaldien egitarauaren barruan. Goizeko 12:00etatik aurrera, Erandioko emigrazioen historia ezagutzeko aukera egongo da, Erandioko udaletxetik irtengo den txangora batuz gero. Taldeak lantegien eta langileen etxeen eredu bi bisitatuko ditu. Hala, ezagutuko dituzte XIX. mendearen amaieraz geroztik Erandiora bizitzera eta lan egitera etorri ziren langileak hartzeko eraiki ziren etxebizitza-eredu desberdinak. Gidak azalpenak gaztelaniaz emango ditu. Bisitarako leku-kopurua mugatua da eta beharrezkoa da aurretik izena ematea. ◀

izen-ematea: 944 890 140

Asuako trenbidearen pasagunean kamerak ipiniko ditu ETSk

Euskal Trenbide Sareak Begicrossing izeneko kontrol-sistema instalatuko du; ikusmen artifizial adimenduneko teknologietan oinarrituta dago eta sei trenbide-pasagunetan ipiniko du; horien artean, Asuan. Garraio-erakundearen arabera, «nabarmen hobetu ahal izango da trena errepideko ibilgailuekin eta oinezkoekin batera ibiltzen den puntu kritiko horietako segurtasuna». Aukeratutako sei puntuak trenbide bakarreko pasaguneak dira eta hesi bidezko babes-sistema duten. Gero, ETSren sareko beste trenbideen bide-gurutze batzuetara zabalduko dute sistema. Aurretik, teknologia hori probatu dute Basauriko Urbiko trenbide-pasagunean. ◀

Nazioarteko IV. Putxera Kriteriuma, Astrabuduan

Datorren aste-akabuan indaburrinak hartuko du Astrabudua. Barikuan eta zapatuan, ohiko lapikoen txapelketa egingo dute Astrabuduko Josu Murueta plazan, Takolos irrati-klubak antolatuta, eta hainbat taldek babestuta. Barikuan, 18:30ean hasiko da ekimena, karpa eta txosna zabaldu eta pintxopoteaz gozatzeko. Zapatuan, ostera, lehiatzeko eguna helduko da. Goizeko 09:00etan zabalduko dute Nazioarteko IV. Putxera Kriteriumaren izen-ematea, 11:00ak arte. Eltzeak berotu eta babak bor-bor ipini ondoren, 13:00 eta 13:30 bitartean izango da gutziak aurkezteko unea. Irabazleak nortzuk diren jakingo da 17:00etan, sari-emanal-



Indaba-lehia asko egoten da herrian. © TAKOLOS

dian. Saririk garrantzitsuena txapela, garaikurra eta 200 euro izango da. Erandioko sukaldaririk onenek ere sariak izango dituzte. Argazki-lehiaketa ere izango da. Bestalde, Mendibaiarte abesbatzak kantatuko du goizean, eta 19:00etan kontzertu bat egongo da. ◀



Begire nago begire

**JOSU
ESNAOLA ARANGUREN**
Helduen euskalduntzean
irakasle

Euskaldun baten galderak inkesta baten aurrean

Letretakoa naizelako izango da, baina trakets mol-datzen naiz zenbakiak irakurtzen, eta askotan galdu ere egiten naiz hainbeste daturen artean. Horrelako zer edo zer gertatu zitzaidan aurreko asteburuan VI. Inkesta Soziolinguistikokoaren aurrean. Hori gutxi ez eta aurreko bi inkestetako datuak ere gehitu nizkion ehuneko mozkorraldiari.

Horrela, bada, zenbaki artean estropezuka eta noraezean sortutako zalantzak ekarri nahi izan ditut lerrootara, ea zuen laguntzarekin argitzen ditudan, apur batean bada ere.

Zergatik gara orain euskaldun aurreko inkestetan elebidun ginenok? Zertara dator aldaketa hori? Deskuidua izan da, arduragabekeria ala beren-beregi hartutako erabakia?

Inkestak erantzutean errealtatea nork bere iragazkitik, galbahe ideologiko, sentimental edo dena delakotik pasatzen duela kontuan izanda, zelan ulertu behar dugu euskaldun-elebidun kopuru apalena Jaurilaritzan PSE-EE zegoela eman izana? Kasualitate hutsa ala badago kausalitaterik horren atzean? Hauteskunde kanpainako bideoa oraindik gogoan daukat eta.

Zelan hartu behar dugu elebidunon artean erdal elebidunen etengabeko gorakada? Zer gertatuko da erdal elebidunak bestelako elebidunak baino gehiago izatera iristen diren egunean? Gorakada horrek ez al du hizkuntza ordezkapena islatzen? Zer egin dezakegu erdal elebidun horiek orekatu bilakatzeko?

Gainera, joera orokorraren aurka, (datua Berriak emana) biztanleen %80 baino gehiago euskaldunak diren herrietan erabilerak behera egiten jarraitzen du. Horietara erdaldun elebakarrak joan direlako ei da. Elebakarren indarra. Bizirik iraun ete dezake hizkuntza batek hiztun elebakarrik gabe? Zelan? Noiz arte? ◀

Leioa

Familientzako elikagaiak

Sortaraziren Haziak programaren bidez, udan ere sendien seme-alabek elikadura egokia jaso zezaten bermatu du Udalak.

Herriko 23 familia lagundu ziotuen udan Udalak Sortarazi elkartearen bidez; sendi horietako ume eta gazteek elikadura egokia izan zezaten bermatzeko. Eskola-adina duten seme-alabak dauzkate aipatutako familiek, eta denek Hazia programan parte hartzen dute. Urtean, eskola-jantokian bazkaltzen dute ume horiek guztiek; horrenbestez, ikasturte osoan ez daukate ezelako arazorik, udal-arduradunek adierazi dutenez; ostera, oporraldia heltzean sortzen dira gorabeherak.

Hala, laguntza ekonomikoa jasotzen dute udako hiletan sendiek.



Dirua oinarrizko elikagaiak erosteko erabiltzen zen egiaztatzeaz arduratu dira. © LEIOAKO UDALA

«Txekeak txanda bitan banatzen dira. Modu horretan, diru hori nahikoa den ala ez, eta txeke horiek janari freskoan eta oinarrizko elikagaietan gastatzen direla egiaztatzen dugu», azaldu dute Udaletik. Leioako Gizarte Zerbitzuek 3.230 euroko partida bideratu dute

aurten, udako oporretan 23 familia horien adingabekoak elikatzen. Horren albotik, Sendiek egindako balorazioa oso positiboa izan da. Hori dela-eta, laguntza hori Gabonetako eta Pazko Asteko oporraldietara luzatzeko asmoa dauka Udalak. ◀

Leioa Blog 3.0 txapelketa aste-akabu honetan izango da

Iazko blog-lehiaketak lortutako arrakasta dela-eta, Udalak berrikuntzaz beteriko beste edizio bat iragarri du urriaren 21erako eta 22rako. Berbarako, blogerak ez dira parte-hartzaile bakarrak izango; kategoria berriak antolatu dituzte, beste sare sozial batzuetan ibiltzen direnek ere parte har dezaten. Hala, argazkizaleak, bideo-produktoreak, mikro-kontaktizunak edo istorioak diseinatzen dituztenak ere lehiatuko dira. Horiek denek udalerriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak bultzatuko dituzte sare sozialetan, egun bi horietan.

Horrez gainera, aurten, «herri-kategoria» berria ere egongo da. Horrela,



Sari gehiago egongo dira. © LEIOAKO UDALA

gura duten leioaztar denek parte hartu ahal izango dute, aurretik izena eman barik. Horretarako, euren argazkiak Instagramen argitara eman beharko dituzte, #LeioaBlog etiketa erabiliz. ◀

info+: behargintzaleioa.net

Ibaiondon HAPOn aldaketa onartu dute, behin-behinean

Ibaiondoko 16B aldean, behin-behinean, HAPO Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aldaketa egitea onartu zuen Udalbatzak, irailaren 29ko osoko bilkuran. EAJ, PSE-EE eta PP-ren zinegotziek alde bozkatu zuten; ostera, Esnatu Leioaren eta EH Bilduren ordezkariak abstenitu egin ziren. Gehienbat erabilera industrialaren erailkinek (%62) osatzen dute eremu hori. Gainerako %38a merkataritza-rako eta bulegoetarako erabiltzen da. Bertoko planeamendua aldatu gura dute merkataritza-guneak, bulegoak eta abarrak egin ahal izateko. Udal arduradunen berbetan, «gune lasaiago bat sortuko genuke». ◀

Leioa Zabalik atarian kontsulta daiteke zaraten gaineko mapa

Mari Carmen Urbieta Gonzalez alkateak urriaren 10ean EAEn Aldizkari Ofizialean iragarri zuenez www.leioa.net eta www.leioazabalik.leioa.net udal-webguneetan ikusgai dago Leioako Zaraten Mapa. Aipatutako txostena atari horietan kontsultatu ahal izango da, azaroaren 11ra arte. Hain zuzen ere, egun horretara arte egongo da alegazioak aurkezteko aukera, legeak agindu bezala. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO
IKASTOLA**

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Ikastolen Elkarte

Sopela

Gazte-mugimenduak talde berria dauka

Tranku gazte-erakunde berriaren ardatz nagusiak feminismoa, sozialismoa eta independentismoa izango dira. Formakuntza eta salaketa landuko dituzte.

Urriaren 12ko Hispanitatearen Egunean bere burua publikoki aurkeztu zuen Tranku gazte-erakunde berriak; udal-pilotalekuaren parean, *Genozidioa ospatzen?* irakur zitezkeen pankarta ipini zuten neska-mutil sopoloztarrek. «Herritarrek zirikatuz, kontzientzia sortarazi gura genuen egun horren inguruan», taldeko kideek azaldu dutenez.

Herrian, Gazte Asanblada edo Plaza Beltza bezalako taldeak egon arren, orokorrean, gazte-mugimendua eta gazteria bera «nahiko hilda» zeudela sumatzen zutelako hartu zuten Sopolan erakunde berria sortzeko erabakia. «Herrian ez genuen mugimendurik nabaritzen. Hori dela-eta, batu ginen eta erabaki genuen beharrezkoa zela beste talde bat sortzea», aipatu dute neska-mutilek. Euren ustez, aukeratutako izenak zentzua dauka: 'Tranku' berbak «pauso handia» esan gura du bertoko euskararen. Euren gazte-mugimendua «berpiztu» gura dute Sopolan.

Jorratuko dituzten arloei dagokienez, hiru dira Tranku gazte-erakundearen ardatzak: feminismoa, sozialismoa eta independentismoa. Taldeko kideek diotenez, «sozialismoaren barruan adar asko daude; baina, besteak beste, gazteen artean ematen den behin-behinekotasuna salatu gura dugu». Bestalde, daborduko lanketa feministagaz hasi dira, eta horren inguruan, hainbat ekintza egiteko asmoa daukate. Horrez gainera, «erantzun» egin gura dute: «presoren bat



'Tranku' berbak «pauso handia» esan gura du sopoloztarren berbakeran. © TRANKU

egoera larrian dagoela, urriaren 12a dela... herritarrek egoera horiez jabetzea gura dugu», zehaztu dute. Hala ere, nabarmendu dutenez, «oraindino hasieran besterik ez gaude; ez daukagu ezer finkatuta».

Formakuntza

Formakuntza ere ez dute alde batera utzi gura Sopolako gazte-erakunde berriko neska-mutilek. Azaldu dutenez, kanpora begira, taldekoak ez diren gazteak hainbat gaietan trebatzeko jarduerak egingo dituzte. «Zer esanik ez Trankuren kideak izan gura dutenentzat», nabarmendu dute.

Urriaren 12an Sopolako udal pilotalekuaren aurrean ipinitako pan-

kartaren inguruko bideoagaz batera, erakundearen ildo nagusiak zeintzuk diren azaltzen duen ikus-entzunezkoa eskegita daukate Interneten Trankuko kideek. Horrez gainera, daborduko hainbat sare sozialetan erabiltzaile-profilak sortu dituzte. Taldearen izezagaz batera ondoko esaldia irakur daiteke: *Ez aitzinatzea, gibelatzea da*. Azaldu dutenez, «taldea sortzearen arrazoia azaltzen du esaldi horrek». «Demagun erakunde berririk ez sortzea erabakitzen dugula. Bada, gazteak euren eskubideen alde borrokatu behar dutela jabe daitezkeen bestelako ezer ez egitea, atzera egitea litzateke; gazteon potentziala galtzea litzateke», adierazi dute Trankuren kideek. ◀

Arazoei aurre egiten erakutsiko diete adinekoen jagoleei

Zainduz egitasmoaren barruan, beste ikastaro bat egongo da urriaren 25ean eta 27an, martitzena eta egue-na, Kurtzio kultur etxean. Senideak jagoten dabiltzan pertsona baliabide egokiak irakatsi gura dizkiete, behar horretan sor daitezkeen arazoei aurre egiteko. Saioak 17:30etik 19:30era izango dira; eta aurretik izena eman beharoko dute parte hartu gura dutenek, ikastaroa doan izan arren. Aldundiak zuzentzen du Zainduz programa; eta jagoletza bideratzen da autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, boluntariotzaren bidez eta zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez. ◀

info+: 946 763 999 / www.uribekosta.eu

Adinbako bi ikertzen dabilta, etxe batean dirua ostea egotzita

Getxoko ertzain-etxeko agenteakaz elkarlanean, adinbako bi ikertzen dabil Sopolako Udaltzaingoa; bata neska da, bestea mutila. Orain dela aste bi, urriaren 7an, Sopolako familia bakarreko etxebizitza batean 400 euro lapurtzea leporatzen diete gazte biei. Udal sopoloztarreko arduradunen berbetan, aipatutako barikuan, 18:30ak aldera, adinbakoak udalerriko baserri batean sartu ziren eta dirua lapurtu zuten; baina, alde egiten zebiltzala, etxeko jabeek ustekabeen harrapatu zituzten gazteak. Baserriko lagunek lapurretaz informatu eta ustezko gaizkileen deskripzio fisikoa eman ostean, Ertzaintzak mutila topatu zuen Getxo udalerrian, eta Udaltzaingoa neska aurkitu zuen Urdulizen. Neskak ei zeroan lapurtutako dirua. Ostutako 400 euroak berreskuratu eta Bilboko Adingabeen Fiskaltzan gertatutakoaren berri eman ostean, euren gurasoen esku utzi zuten bikotea. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

ARTOLOZAGA
ANAIK
Tailerrak
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

BOSCH
Service
Car Service

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

hau herkontzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

Lemoiz



Erandioko Navaceleko instalazioetatik Armintzako Bimepen estaziora eroan dute energia-sorgailua. © EVE

Martxan da prototipoa

Armintzako kostaldean dago olatuen bidez energia elektrikoa ekoizteko lehenengo dispositiboa, daborduko.

Orain dela bederatzita hilabete hasi ziren energia-kaptadore hori eraikitzen, Erandioko Navacel enpresan. Behin lanak amaituta, Erandiotik Armintzaraino eroan zuten dispositiboa, joan den astean. Bertan ainguratu dute, Bimepek itsaso zabalean dituen saiakuntza-instalazioetan, probak egin ditzan. Ocean Tec enpresak (Tecnalia eta Iberdrolak sortutakoa) gidatu du prototipo horren garapen teknologikoa, Energiaren Euskal Erakundearen babesean. Energia-kaptadoreak 42 metroko luzera du eta horren garraio-lanak joan den urriaren

12an egin zituzten. Ibilbidea Erandion hasi zen, Navacelek dituen instalazioetan; Bizkaiko Zubiaren azpitik igaro, eta ondoren Armintzako kostalderaino eroan zuten, Bimepeko ur zabaleko eremua dagoen lekura. Lan horietan guztietan parte hartu zuten tona handiko garabi bik, urpekari-talde espezializatuak, atoiointzi bik eta hainbat txalupa laguntzailek. Daborduko prototipoa martxan dago Armintzan, olatuen bidez energia elektrikoa sortzeko. Marmok A5 izeneko kaptadore hori potentzia txikikoa da; 42 metro luze ditu, 5 metroko diametroa eta 80 tonako pisua.

Modu bertikalean, itsasoan murgilduta dago ia osorik, buru flotatzailea izan ezik. Energia sortuko du OWC (ur-zutabe oszilatzailea) deritzon teknologiaren bidez. Teknologia hori bera da Mutrikuko olatuen instalazioan energia sortzen duena, baina oraingoan kostatik aldentuta, olatuek energia gehiago duten aldean dago. Kaptadoreak dituen turbinak biek Mutrikuko energia-instalazioan probatu edo testatu ziren udaberrian, itsasoan abian ipini aurreko pauso legez. Orain, ahalegin horiek guztiak Armintzako kostaldean kokatuta dagoen Bimepen instalazioetan egingo dira, itsaso zabalean, itsas trafikoa mugatutako eremu batean. Sortuko den elektrizitatea bertan dauden itsaspeko kableen bidez bideratuko da lehorrera. ◀

izen-ematea: 688 602 121 (Marian)

Nagusientzako euskara-ikastaroaren taldea sortu gura dute

Lehenengo ahaleginean lagun baka-larrak eman du izena Lemoizko Udalak eta AEK euskaltegiak antolatutako euskara ikastaroetan. Kurtsoa gurasoei eta aitona-amonei begirakoa da, eta taldea sortu ahal izateko izen-ematearen epea zabaldu dute berriro ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Horretarako, Gorlizko, Plentziako edo Urdulizko AEK euskaltegiak joan ahal izango da. Saioak doakoak izango dira. ◀

Berango

Gerratik ihesi joandako ume euskaldunen esposizioa

Ondarearen Europako Jardunaldiak direla-eta, *Bakerantz* izeneko erakusketa ikus daiteke Berangoeta kultur etxeko erakusketaretoan. 1937ko maiatzetik ekainera bitartean, armada frankistak euskal frontea erasotzen zuen bitartean, Euskadiko agintariak milaka ume ateratzea erabaki zuten, gerrako arrisku eta izutik urruntzeko asmoz. Argazki-erakusketan garai horretako irudiak ikus daitezke. Besteak beste, etxetik kanporatu zituztenen erretratuak eta agiriak daude argazki horietan. Protagonisten aurpegiek agurrak dakarren tristuraren eta itsasoaz bestaldean etorkizun

baketsua aurkitzeko poztasunaren arteko aldea erakusten dute. Britainia Handia, Frantzia, Belgika eta Sobietar Batasuna izan ziren ume haien helmugak, besteak beste.

Argazki-erakusketa

Esposizioa urriaren 31ra arte bisita daiteke, Berangoeta kultur etxean, asteleheneratik barikura, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Horrez gainera, bisita gidatuak eskainiko dituzte; hurrengo, hilaren 27an, eguenean, 18:30etik 19:00etara. Argazki-erakusketako testuak euskaraz eta gaztelaniaz daude. ◀

Jubilatuentzako txokolate-jana eta irteera prest dituzte

Berangoko pentsionisten eta jubilatuena Karabi-Azpi elkarteak jarduerara bi antolatu ditu udalerriko nagusien gozamenerako. Hasteko, bariku honetan, hilaren 21ean, txokolate-dastaketa egingo dute Nagusien Etxeko bigarren solairuan. Horretarako hitzordua 18:00etan ipini dute. Modu berean, urriaren 31n txangoa antolatu dute, Gernikan egingo den Urriko Azken Astelehenera joateko. Irteerarako hitzordua 09:30ean ipini dute, Landan; buelta, berri, 19:00etan izatea aurreikusi dute. Bazkaria Busturiako El Tenis jantxan izango da; alde aurretik izena ematea beharrezkoa da. ◀

Endika Basagurenen Helmugak ikusgai, Geroarte galerian

Endika Basagurenen *Helmugak* erakusketa ikus daiteke daborduko Bilboko San Francisco kaleko 15.ean Geroarte Efimerart Galleryn. Artistak jakinarazi duenez, esposizioa hilaren 30era arte egongo da ikusgai. Basagurenen erakusketak argazkilaritza, marrazkigintza, eskulturagintza eta ikus-entzunezkoak uztartzen ditu. Lan hori prestatzen zebilela hasi zen Siriako gatazka, eta itsasoak esangura handia hartu du geroztik, egileak azaldu duenez. Hala, horren helburua da hausnartzea itsasoaren inguruan, bizirauteko beharrezkoa den bidaiaren hasiera eta segurtasunik bakoa legez... ◀

Plentzia

Placentia eta Plentzia senidetzeko prozesua

Kanadako bertokoagaz duen lotura dela-eta, Placentiako ordezkariak gurera etorri dira, herri biak batzeko.

Kanadako Placentia eta Uribe Kostako Plentzia senidetzeko prozesuari hasiera eman diote daborduko. Horretarako, Wayne Power Placentiako alkatea eta Noella Collins Kultura eta Turismo zinegotzia gurera etorri ziren joan den aste-akabuan. Bariku goizean Bizkaiko Foru Aldundiko Jauregian egon ziren; arrastian, osera, Plentziara hurreratu ziren. Bertan, ondoetorria egin zieten auresku dantzatzuz eta txalaparta joz; ostean, aginte-makila entregatu zieten Kanadako bisitariei. Ondoren, herrialde bien arteko lotura historikoen inguruan berba egin zuten. Hurrengo egunean, zapatuan, berriz, senidetze-prozesuaren helburuak proposatu zituzten, besteak beste, herri bien arteko harremana ezagutarazteko eta harreman historikoan sakontzeko, Dabid Crestelo Plentziako alkateak jakinarazi duenez. Momentuz, proposamenak baino ez dituzte mahai-gaineratu, eta horiek guztiak lantzeko lantalde «zabala» eratuko dutela iragarri du alkateak, interesa duen edonork parte hartu ahal izango du. Horren ostean, senidetzea «behin betiko» sinatzeko, 2017ko



Placentiako ordezkariak harrera egin zieten Plentziako Ontziola plazan.

ekain-uztaila aldera Plentziako ordezkariak Kanadako herrira joango dira. Izan ere, *Tras las huellas de los bañeros vascos en Terranova y Labrador* espedizioak geldialdia egingo du garai horretan Placentian. Ternuako hiriburu izan zen Placentia, balea-ehiztariak bertan egon ziren garaian. Kanadako Placentia Plentziako itsasgizonek sor izan zezaketela pentsatu, ikertu eta haritik tiratzen hasi zena Sabino Laurcirica historiazale plentziarra izan zen. Txosten artean murgildu eta Placentiako jendeagaz harremanetan ipini zen. Hala, *Placentia Area Historical Society*k

euren ondarea jagoteagatik ematen duen saria eskaini zion plentziarrari: *Heritage Award* saria. Laurciricak ikerketa amaitu eta emaitzak argitaratu ondoren, herri biek senidetzeko pausoak abiatu zituzten. Hala, herri bien banderak ikus daitezke ordutik herri bietako udaletxeetan; Ternuara egindako bidaietan Unai Basurkok garraiatu zituen ikur biak. Halere, orain arte, bateko zein besteko agintariek ez zuten bata bestearen herria bisitatu. Hala, Plentziako alkatea eta zinegotzia gurera etortzeagaz batera, senidetze-prozesu ofizialari hasiera eman diote herri biek. ◀

Bielorrusiako umeak ekartzeko boluntarioak behar dituzte

Plentziako Izanik elkarteak laguntzarako deialdia egin du, gurera Bielorrusiatik umeak udan ekartzen segitu ahal izateko. Elkarteko arduradunek azaldu dutenez, lanez gainezka dabilta, eta ia ezinezkoa dute orain arte egindako lana egiten jarraitzea. Hori dela-eta, umeak gurean dauden tartean egin beharreko zereginetan laguntzeko prest dagoen jende bila dabil elkartea. Azaldu dutenez, ia 18 urte daroztate Bielorrusiako neskatila gazteak udaro gurera ekartzen. Bertan 50 egun inguru ematen dituzte, eta horiek hemen behar bezala egon ahal izateko, boluntarioek egindako lana beharrezkoa dela iragarri dute antolatzaileek. Hala, lan-



© ACOBI

karga «gehiegizkoa» izan ez dadin, boluntarioek izena emateko telefonoa ipini dute martxan. Izan ere, boluntario horiek barik, litekeena da etorkizunean orain arte egindako lana bertan behera utzi behar izatea. ◀

harremanetarako: 616 654 805

Rosa Díaz Garcíaen Leku eta Bazterrak ikusgai, Goñi Portalen

Hilaren 23ra arte bisita daiteke Goñi Portalen Rosa Díaz Garcíaen *Leku eta Bazterrak* erakusketa. Eki-menerako bereziki margotutako 12 ur-margok eta alde aurretik egindako 19 akrilikok osatzen dute esposizioa.

Artistak azaldu duenez, «Plentzia herria oso polita da, eta urmargoetan bazter politak erakutsi nahi izan ditut». Akrilikoaren kasuan, berriz, bertakoak eta inguruko lekuak aurkezten ditu, barbarako Gaztelugatxe eta Dulantziko trikuharria.

Margoen erakusketa astelehenetik domekara bisita daiteke, Plentziako Goñi Portal kultur etxean, hurrengo ordutegian: 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. ◀



Ttipi-ttapa

IRATXE
MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Errigorago joan!
Errigorago izan!
Errigora gaitezen!

Zer goxo! Zelango gozame-na! Ederra! Horixe bera etortzen zaigu burura Errigorak euskaltegian, ikastolan, lantokian... utzitako lotea jaso eta etxean probatzen dugunean. Zikliko bihurtu da, gure buruaren egutegian markatutako datak dira: Gabonetako kutxa, olio eta kontserbak. 3-4 urte dira gorpil horretan sartu ginela eta gure egunerokoan txertatuta dago dagoeneko.

Baina gogoratzen dugu honen guztiaren sorrera? Hasierara jotzen badugu, zer dela eta Nafarroako hegoaldeko produktoreak eta euskaltzaleak batu eta horrelako abentura batean sartzea?

Nafarroako hegoaldean bi dira, hiltorian ez bada ere, oso larri dauden bi gaixo: baratza eta euskara. Baratza produktu arrotzek ezartzen dituzten salneurrien kontra borrokatu ezinean dagoelako eta euskara ...

Guztiok ezaguna da Nafarroan oraindik indarrean dagoen euskararen legea. Horrek hegoaldea jotzen du bortizkiago, euskara ofiziala ez den zonaldean ikastolen eta euskaltegien egoera larria da, euskara ikasi nahi dutenen egoera larria da.

Eta bi egoera itolarri hauei laguntza eta sostengu ekonomikoa ematearren sortu zen Errigora.

Errigora martxan jarri zenez 500.000 euro bideratu zaizkio Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari Gabonetako kanpaina-tik bakarrik.

Kanpainan eskaerak egiteko epea urriaren 23an zabalduko da. Errigorak Gabonetako kanpainarekin Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari egiten dion %25eko aportazio hori oso garrantzitsua dela gogora ekarri behar dugu. Hainbat zaku bete da aportazio horretatik: euskara ikasleentzako bekak ziurtatu dira, adibidez. Garaia da erronka eta proiektu berriak martxan ipintzeko.

Joango gara Errigorago? Izango gara Errigorago? ◀

Uribe Kosta

Zerbitzu berri bat, laster

Bularreko minbiziaren detekziorako unitatea martxan ipiniko dute «datozen asteotan».

Urdulizko Alfredo Espinosa ospitaleak zerbitzu berri bat eskainiko du, «laster». Izan ere, bularreko minbiziaren detekziorako eta baloraziorako unitate berria martxan ipiniko dute «datozen asteotan»; hala iragarri du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Iragarpen hori

egin zuen Bularreko Minbiziaren Mundu-Egunaren harira ezagutarazi zituen datuen artean. Urriaren 19a, eguaztena, izan zen bularreko minbiziaren gaitasunari eta berori jasaten dutenei begira nazioarteak aukeratutako egun hori, hain zuzen ere.

Horrenbestez, Urdulizko ospitaleko unitate berriari artatuko dituzte beren-beregi Uribe eta Mungialdea eskualdeetako emakumeak, bularreko minbiziaren detekzio goiztiarren programari jarraituz. Hala ere, zerbitzu hori «laster» edo «datozen asteo-

tan» abiatuko dutela jakinarazi badu ere, Osasun Sailak ez du data zehatzen berri eman, oraindino.

Ostera, bide batez, gaiari loturiko nazioarteko eguna zenez, hurrengo gogorarazi du: «detekzio goiztiarrak biziraupena luzatzen du, eta bularreko minbiziak eragindako emakumeen % 82k bularreko tratamendu kirurgiko kontserbadorea jaso ahal izan dute»; horren albotik, adierazi du jarraituko duela «Osakidetza Bularreko Minbiziaren Detekzio Goiztiarreko Programari laguntzen eta baliabideak ematen».

Boluntario bila dabilta, ingurumen-beharretan jarduteko

Aurrekoan legez, Urdulizko berotegia txukuntzeko boluntarioak behar dituzte. Aurreko lan-jardunaldian parte hartu zutenei eskerrak eman ostean, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak beste hitzordu bat ipini du: urriaren 22an, zapatua, 10:00etan, berotegian bertan. Ingurumen-lanotan parte hartu gura dutenek izena eman dezatela eskatu dute antolatzaileek; eta lana eta ekarpena eskertzeko «hamaiketako» prestatuko dutela iragarri dute.

izen-ematea: cursos@uribekosta.org / 946 579 280

Jado eta Gazteluetako ikasleak, Ciencia Clipeko irabazleak

Zientzia eta teknologiarekiko interesa bultzatzea izan du helburu Ciencia Clip lehiaketak. Horren irabazleetako batzuk izan dira Erandioko Jado eta Leioako Gazteluetako ikastetxeetako lau ikasle. EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak abiatu zuen zientziaren gaineko dibulgaziozko bideo-lehiaketa urte hasieran, eta orain dela gutxi banatu dituzte sariak. Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa eta Big Van taldearen zein Naukas dibulgazio zientifikorako plataformaren laguntza izan ditu ekimenak. «Bigarren Hezkuntzako ikasleak diseinatzaile, ekoizle eta protagonista lanetan ipini» zituen lehiaketak, eta 205 bideo jaso zituzten Euskal Herritik zein atzeritik.

Bakarka zein taldeka parte-hartzeko aukera egon zen, ikasketa-mailaren arabera S, M eta L kategorietan. Jasotako lan denetatik 194 onartu zituzten; gero, azken fasean, epaimahaiak 26 bideo hautatu zituen.

Irabazleak

Batetik, Erandioko Jado ikastetxeko Aida de los Ríos izan da nagusi S kategoriako bakarkako atalean; *Teoría de la relatividad especial (explicación breve)* bere bideoa saritu dute-eta. Bestetik, Leioako Gaztelueta ikastetxeko Pablo Elexpuru, Gabriel Ibarra eta Guillermo Hurtadoren *Nanotecnología* lana izan da garaile M kategoriako taldeko lanen artean.



V. argiHizkiak erakusketak hasi du bere ibilbidea, Getxon. Pasa den eguenean izan zen inaugurazioa eta sari-banaketaren ekitaldia (argazki gehiago: hiruka.eus-en). Lehiaketaren 10 argazkiak eta 40 testu onenak ikusgai egongo dira Torreneko aretoan, hilaren 30era arte.

HIRUKA ZAITEZ!
eta Gabonetan...

ERRI GORAren
SASKI hau irabaz
dezakezu

Saski beltza zozkatuko dugu abenduaren 31 baino lehen, Hirukalagun edo bazkide egiten zareten guztien artean. Horrenbestez, izena eman eta Hirukabantailez gozatu aurrerantzean!

HIRUKALAGUN EGITEKO:

e-mailez
hirukakoop@hiruka.eus

telefonoz
94 491 13 37

agerkariaren bidez
<http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/>





Azaroaren zora arte Ipar Euskal Herria ezagutzeko hamaika aukera izango da. © GETXOKO UDALA

Datozen ekitaldiak

Urriak 26, eguaztena

19:30 *Neskatoak eta Dominica* dokumentalen emanaldia, Algortako kultur etxean. Ondoren, berbaldia Jon Abril zuzendariagaz eta Eli Arrillaga artzain eta protagonistagaz. Euskaraz, gaztelaniazko azpigituluakaz. Doan.

Urriak 27, eguena

19:30 *Baionak ez daki* liburuaren gaineko berbaldia Bea Salaberri idazleagaz, Torreñe erakusketa-aretoan. Egizuk antolatuta. Euskaraz. Sarrera, doan.

Pintxo-potea, Algortako eta Itzurbaltzetako hainbat tabernatan: San Nikolas ibilbideko ostatuak, Taberna Berri, Lainoa, Gure Etxea eta Arotza.

Urriak 29, zapatua

12:30 *Herrikoa* dantza-ikuskitza Senpereko Zarena Zarelako taldeagaz, Algortako Telletxe plazan. Sarrera, doan.

13:00 Kantu-jira Kuxkuxtu txarangagaz, Algortako Telletxe plazan. Sarrera, doan.

Mugaz gaindikoak

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak zazpigarrenez helduko dira Getxo udalerrira. Kultura ez ezik, Ipar Euskal Herriko politika eta hezkuntza ezagutzeko aukera izango da.

Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundeak hamabi urte baino gehiago darozta harremanetan Getxoko Udalagaz; harreman horretatik sortu dira Iparra Galdu Gabe bezalako programak. Ekimen hori bi urtean behin egiten da eta bere helburua da Ipar Euskal Herria Getxon ezagutaraztea. Urriaren 26tik azaroaren

20ra zazpigarren edizioaz gozatu ahal izango da, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako hamaika atal ezagutzen. Ekitaldi gehienak kulturari dagozkion ekarpenak izango dira, berbarako Barkoxeko Maddi Oihenart musikariaren *Doi* diskaren aurkezpena; Haize Othondoren *Ozeanoaren Kontista* itzal-antzezlan; Bea Salaberri

idazlearen *Baionak ez daki* liburuaren gaineko literatura-berbaldia, Egizu elkarteak antolatutakoa; *Neskatoak* eta *Dominica* film-dokumentalen emanaldia eta berbaldia; Zarena Zarelako dantza-taldearen *Herrikoa* ikuskizuna; eta Kuxkuxtu txarangaren kantu-jira.

Hizkuntza berbagai

Halere, Ipar Euskal Herriko egoera politikoak eta linguistikoak eta bertako hezkuntza-sistemak ere presentzia izango dute aurtengo Iparra Galdu Gabe jardunaldietan. Azaroaren 16an,

esaterako, «Herria eta hizkuntza» izeneko solasaldia izango da Algortako Villamonte kaleko kultur etxean. Gonbidatuak izango dira Battitta Boloqui Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko zuzendaria eta Hélène Charriton Baionako Etxepare lizeoko zuzendaria. Ezaguna denez, Ipar Euskal Herriko udalek Herri Elkargo edo mankomunitate bakarra sortuko dute datorren urtarrilaren 1ean. Bestalde, Etxepare Lizeoa lehengo sailkatu da Frantziako Estatuan Baxoa edo selektibitateko diploma-emaizetan. ◀

ALBEko bost bertsolari, aste-akabuko lehietan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udagoieneko Fasea abiatu zuten, pasa den zapatuan, Mungian. Miren Amuriza Plaza berriztara nagusitu zen eta, horri esker, finalurrekoetarako txartel zuzena lortu zuen. Imanol Uria Albizuri algortarra hirugarren sailkatu zen, 446 puntu metatuta. Hurrengo fasera pasatuko den jakiteko, itxaron egin behar izango du. Bitartean, datorren aste-akabuan saio bitan parte hartuko dute eskualdeko bertsolariak. Saio biak izango dira 17:30ean. Zapatuan, hilak 22, Sestaoko musika-eskolako aretoaren oholtzaren gainean, lau uribekostar izango dira: Arrate Illaro Etxeba-



Miren Amuriza Mungia saioan. © BBE

ria, Josu landeta Egurrola zein Peru eta Inazio Vidal Gurrutxaga. Domekan, oster, Paule Ixiar Loizaga Legarra izango da eskualdeko ordezkaria Igorreko Lasarte aretoan. ◀

sarrerak: Bertsosarrerak.eus

Mitxelko Uranga idazle berangoztarrak irabazi du Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria

Mitxelko Uranga Álvarez irakasle berangoztarrak irabazi du Euskadi Literatura Saria, Euskarazko Saiakerara atalean, *Tartaroa, mina, boterea eta egia* lanagaz. Urangak 38 urte ditu, filosofian doktorea da eta jakintza hori irakasten du Sopolako Ander Deuna ikastolan. Aurkeztutako lanean, hainbat jendarte-gogoeta plazaratu ditu. Greziako mitologia abiapuntutzat hartuta, Urangak berbabide izan ditu globalizazioa, demokrazia, kontsumismoa, biktimismoa, terrorismoa eta gaur egungo jendartearen beldur eta mamuak. Berangoztarrak 18.000 euroko saria eta lana beste hizkuntzaren batean argitaratzeko laguntza jaso ditu. ◀

Fernando Morillo idazleagaz hitzordua, urriaren 27an, Astrabuduko liburutegian


Astrabuduko liburutegia bisitatuko du Fernando Morillo Grande idazle azpeitiarrak, datorren eguenean, hilak 27, 18:00etatik aurrera. Morillok euskarazko gazte-literaturako 40 lan baino gehiago sortu ditu, besteak beste *Zonbia San Mamesen*, *Maddi eta euskal piratak* edo *Zauri ezkutua*. Bere ustez, Astrabudukoa bezalako saioak «ikasteko modu ederra dira, idazlearentzat nahiz irakurleentzat. Hori bai, zenbat buru, hainbat hitzaldi mota. Denetariko ekitaldiak sortzen dira. Funtsezkoena, esango nuke, literatura egitea da. Literatura bizitza da, sua, indarra, magia eta lilura». ◀

info+: Fernandomorillo.eu

hirukaganda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko urriaren 20tik urriaren 26ra arte



Aitxul euskara-taldea 2006an sortu zen; hamar urteotan, hamaika ekimen eta jarduera egin ditu euskararen alde.

SOPELA

Zapatuan agur esango du Aitxu! euskara-taldeak

Sopelan euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatzeko 10 urteko bidea egin ostean, zapatu honetan, urriak 22, egingo du azkenengo kantaldia Aitxu! euskara-taldeak. Hitzordua 19:00etan ipini dute. Laiak tabernan. «Ez dugu gure hizkuntza geldirik ikusi nahi. Hori dela-eta, lekukoa parratu dute. Horrez gainera, gure hizkuntza erabiltzeko eremu berriak

adierazi dute euskaltzaleek. Euren ustez, «indar berriak behar dira, ideia berriak, gogo berriak, euskaldun temati berriak. Hori da gure agurraren desioa». Hamar urteotan hiru esparrutan oinarritu ditu bere egitekoak Aitxuk, Batetik, sentsibilizazioa (kanpainak, erromeriak, kantaldiak...) jaratu dute. Horrez gainera, gure hizkuntza erabiltzeko eremu berriak

lantzen jardun du euskara-taldeak. Berbarako, udalerririko merkatari eta ostalariakaz. euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egin du.

Zerbitzu publikoetan ere euskara bermatzen ahalegindu da Aitxu: kiroldegiko jarduerak euskaraz ere izan zitezten elkarlanean jardun zuen Mankomunitateagaz, Udalagaz eta Serviociogaz, 2011n. ◀



hiruka.eus



2016/10/20 - 17:30-19:30

Arkitektura-tailerra

Ontziola plaza | Plentzia

Euskeraz Olgetan. Urriaren 21etik 23ra, Urdulizko Antsonetokoa (17:30-19:30), Gorlizko Ibarreta (12:00-14:00) eta Larrabasterrako Urgitxietan (12:00-14:00) plazetan egingo dute. Informazio gehiago: www.uribekosta.eu

2016/10/20 - 18:00

Ipuinaren Ordua

Gobelako haur-liburutegia | Getxo

Ines Bengoagaz. 4 eta 8 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/10/20 - 19:00

Sopelako Irakurle Kluba

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Joxean Agirre Odriozola (Azpeltia, 1949) idazlearen *Gizajoen katalogoa* (Elkar, 2016) izango dute berbagai. Euskaraz. Doan.

2016/10/20 - 19:30

11 años de Kosta Trail berbaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Sopelako Mendi Astea. Kosta Trail lasterketako antolatzaileakaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Gonbidapenak udaletxean, Sopelarin (Larrabasterra) bulegoan eta Kurtzian.

2016/10/20 - 20:00

Zerura eroria antzezlan

Altzagako azoka zaharra | Erandio

Anodino Teatroa taldeagaz. Euskaraz. Doan.

2016/10/21 - 2016/10/22

Leioa Blog 3.0 lehiaketa

Mendibile jauregia | Leioa

Informazioa eta izen-ematea: leioablog.com

2016/10/21 - 2016/10/22 - 18:00-24:00

Artisau-garagardoan azoka

Elizako plaza | Gortiz

Urri Gastronómikoa. Musika ere egingo da.

2016/10/21 - 17:30-19:30

Umeentzako herri-kirolak

Kultur Leioako arkupeak | Leioa

Barikuetan Jai egitasmoa. Euskaraz. Doan.

2016/10/21 - 17:30-19:00

Ludoteka

Udal liburutegia | Barrika

5 eta 12 urte arteko umeentzat. Doan.

2016/10/21 - 19:30

Mendi Tour

Kurtzio kultur etxea | Sopela

2016/10/22 - 18:30

Goazen itsasora ipuin-saioa

Sertutxena eraikina | Gortiz

Saioa 4 urtetik gorako umeentzat da. Euskaraz. Sarrera, doan. Orduan egotea eskatzen dute; 18:40an itxiko dituzte ateak.

2016/10/22 - 19:00

Los Cinco Bilbainos

Berango Antzokia | Berango

Ohi den legez, bilbainadak kantatuko dituzte. Sarrera: 1 euro.

2016/10/22 - 20:00

Capercucita feroz antzezlan

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Glu Glu taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

2016/10/23 - 08:15

Ibilaldi neurtua

Sei Herri taberna | Berango

Sei Herri kultur elkarteak antolatuta. Helduak (16 kilometro) 08:15ean abiatuko dira, eta haurrak (8 kilometro) 09:00etan. Horrez gainera, umeentzako jarduerak eta bazkaria egingo dira. Izen-ematea egun berean egin behariko dute parte-hartzaileek. Informazio gehiago: ibilalidneurtuaseiherri.blogspot.com

2016/10/23 - 08:30-15:00

Kanpoko margo-lehiaketa

Arene kalea, 8 (Algorta) | Getxo

Antzezleak kolektiboak antolatuta. Informazioa eta izen-ematea: 944 308 926.

2016/10/23 - 09:30

Iluntzar mendira irteera

Armintzako bus-geltokia | Lemoiz

Etzandarrri Euskal Mendi Taldeagaz. Nabarmizetik igoko dute 726 metroko altuera daukan Iluntzar mendia. 17:00etan egingo dira bueltan. Izen-ematea: 688 602 121 (Marián).

2016/10/23 - 11:00-14:30

Perretxikoen erakusketa

San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo

Mikologia Jardunaldiak. Basozaleak taldeak antolatuta. Perretxikoak sailkatzeko lehiaketa (16 urtetik beharagoentzat ere) egingo dute.

2016/10/23 - 11:30

Mikologia Azoka

San Pedro plaza | Gortiz

Mikologia Jardunaldiak. Perretxikoen erakusketa eta dastaketa egingo dira. Aurreko egun bietan, berriz, argazki- eta pintxo-lehiaketak zein perretxikoak batzeko irteera egingo dituzte.

2016/10/23 - 17:30

GORLIZ

Egunkaria zabaldu zuteneko garaiak

Plentziako eta Gorlizko Euskara Agentziaren bateratuaren barruan, *Gaur ireki-ko ditu ateak* dokumentala egongo da ikusgai eguen honetan, urriak 20. Hiruzortzua 19:00etan ipini dute Gorlizko Sertutxena eraikinean; sarrera, doan. ◀

ERANDIO

Familiagaz euskaraz gozatzeko aukera

Zapatutan izeneko egitasmoa abian jarriko du aste honetan Erandioko Euskara Zerbitzuak. Hala, urriaren 22an, eraikuntza- eta sormen-ikastaroaz gozatzeko aukera egongo da, 17:00etan, Erandiogoiikoko gizarte-etxean. ◀

LEIOA

Euskarazko ipuinak, Lupe Lekuonagaz

Lupe Lekuona ipuin-kontalariak saioa eskainiko du urriaren 27an, eguena, 18:00etan, Kultur Leioako haur-liburutegian. Antolatzaileek zehaztu dutenez, emanaldia doan da, baina ezinbestekoa da aurretik izena ematea. ◀

Orain dela 40 urte, 1976ko Santo Domingo egunean (abuztuak 4) Ikurrinagaz atera ziren Berangoko dantzariak. © SIMON DE OTXANDATEGI TALDEA



Ikurrinagaz dantza egin zutenen omenez

Franco hil ostean, Berangoko Otxandategi taldekoak izan ziren ikurrinagaz kalean dantza egiten lehenengoak, euren diotenez. Une historikoa frogatzen duten filmak proiektatzeaz gainera, hori egiteko adorea eduki zuten dantzari ohiei gorazarre egingo diete barrikuko ekitaldian. ◀

Noiz: Urriak 21, barikua.

Ordua: 20:00.

Non: Berangoko pilotalekua.

Sarrera: Doan.

argi
hizki

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Urriaren 30era arte

Torreneko erakusketa-aretoan (Algorta)

egizu!



hiruka

Dantzaldia, orkestragaz
Aitzagako azoka zaharra | Erandio
Galea musika-taldeagaz. Sarrera, doan.

2016/10/23 - 19:00

De bedets antzeziana

Areetako musika-eskola | Getxo

Emakumeak Eszenen zirkuitua. Burbujas taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/10/23 - 19:30

Mikologia-berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo

Mikologia Jardunaldiak. Basozaleak taldeak antolatuta. Alfred Lorentek emango du *Introducción a la micología* berbaldia. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/24 - 2016/11/06

Perretxikoen argazkiak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Plentzia Uria XIX. Perretxiko Astea. Sarrera, doan.

2016/10/24 - 2016/11/05

Mexikori buruzko erakusketa

Algortako kultur etxea | Getxo

El día de los muertos esposizioa Jarrriko du México Lindo elkarteak. Sarrera, doan.

2016/10/25 eta 2016/10/27 - 17:30-19:30

Barreterapia-tailerra

Goñi Portal kultu etxea | Plentzia

Zainduz. Doan. Izen-ematea: 946 763 999.

2016/10/25 - 18:00

Tom Txiki eta ispilu magikoa
animaziozko filma

Berango Antzokia | Berango

Umertzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/10/25 - 20:00

Antes del frío invierno filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo zineforumaren barruan, 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/10/26 - 19:30

Neskatoak eta Dominica
euskarazko dokumentalak

Algortako kultur etxea | Getxo

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak. Sarrera, doan.

2016/10/26 - 19:30

Batavia Madrigal Singers
(Indonesia) abesbatza

Errentorearen eliza (Algorta) | Getxo

Aste Korala. Sarrera, doan.

2016/10/21 - 19:30

Pintxo-potea eta dantzaldia

Josu Murreta plaza (Astrabudua) | Erandio

Takolos irrati-klubak antolatuta.

2016/10/21 - 20:30

Cuaderno en blanco antzeziana

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Hika Teatroa taldeagaz. Sarrera: 6-12 euro.

2016/10/22 - 2016/10/24 - 20:00

Cafe society filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Ikusi gura dutenek 7 urte baino gehiago eduki behar dute. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/10/22 - 2016/10/23 - 10:30

Itinerario Pinilla: Verdes valles, colinas rojas ibilbidea

San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo

Gustavo Iduriagaz. Gaztelaniaz. Doan. Informazioa eta izen-ematea: 944 910 800.

2016/10/22 - 2016/10/23 - 17:30

Mi amigo el gigante filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/10/22 - 09:00

Putxeren Kriteriuma

Josu Murreta plaza (Astrabudua) | Erandio

Takolos irrati-klubak antolatuta. Izen-ematea lehenengo orduan egin beharko dute partaideek; lapikoak 13:00etan aurkeztuko dituzte. Arrastian, sariak banatu (17:00) eta Artaburuak zein La Vallecana Sound System taldeen kontzertuak (19:00) egongo dira.

2016/10/22 - 09:00

Fermin Areitio Larrea
argazki-lehiaketa

Josu Murreta plaza (Astrabudua) | Erandio

Takolos irrati-klubak antolatuta. Gaia Putxeren Kriteriuma izango da; argazkiak sakelako telefonoagaz atera beharko dituzte partaideek. Oinarririk txosman aurki daitezke.

2016/10/22 - 18:00

Zipi y Zape y la isla del capitán umeentzako filma

Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Urriaren 26tik 28ra, hiru abesbatzak kantatuko dute Getxoko Aste Koralarren 36. edizioan

Aurtengo Getxoko Aste Korala datorren asteko eguaztenetik bari-kura egingo da, hilaren 26tik 28ra; da-borduko, 36. edizioa. Ohi legez, saioak Algortako Erredentore elizan izango dira; 19:30ean. Sarrera, doan. Hala, beste behin, Getxon polifonia protagonista bihurtuko da hiru egunean, Hezetasuna auzoko jaietan jaio zen Aste Koralarren ekimenez. Aurten, ekimenak nazioarte-mailako hiru abesbatza ezagun ekarriko ditu. Honako talde hauek entzuteko aukera egongo da: Batavia Madrigal Singers, Indonesiako koral mistorik sarituena, Jakarta hiriburutik etorrita; Ensemble Vocal Ámbar, Kubako boskote mistoa, pieza klasikoak zein kanta modernoek moldaketak abesten gozatzen duena; eta musika-ikasleak eta -profesionalek osatutako Tonos Humanos talde kolonbiarra. Eguaztenean, Batavia Madrigal Singers ganbera-abiesbatzak abiatuko du astea. 1996an sortu zen taldea eta bere erreperitorioak musika barrokoa, modernoa, profanoa, eliz musika eta Indonesiako tradizioko kantak eta dantzak hartzen ditu. Eguenean, Ensemble Vocal Ámbar boskoteaz gozatu ahal izango da, orain dela urte bi taldea zortzikote moduan sortu zen arren. Barikuan, Medellingo Tonos Humanos ahots-taldeak itxiko du festibala. ◀



Onddoen ekologiarren gainean berba egingo du Zigor Ugartetxek urriaren 27an, Villamonten. © BASOZALEAK

Ekitaldi batzuk

Algorta

Urriak 23, domeka

11:00 Perretxikoen erakusketa eta dastatzeko aukera, San Nikolas plazan.

Urriak 25, martitzena

19:30 Mikologiaren hastapenen gaineko berbaldia, Alfred Llorentegaz, Villamonten.

Gorliz

Urriak 23, domeka

11:30 Perretxiko-erakusketa, mahai didaktikoak, umeen perretxiko-lehiaketa eta sari-emanaldiak; San Pedro plazan.

Plentzia

Urriaren 24tik azaroaren 6ra

Argazki-erakusketa, Goñi Portalen.

Perretxikoen sasoiak da

Perretxikoak batzeko artea goraiatuko dute egunotan Algortan, Gortzen eta Plentzian, mikologia-jardueren bidez.

Udagoienean sano sartuta gaudela, perretxikozale amorratuenean urrezko sasoiak heldu da, otarra hartuta lurrak ematen duen fruitu preziatuenetako bat batzera joateko. Horrela ulertu dute Gortzen, Plentzian eta Getxoko ondozaleek. Hala, hiru udalerrri horietan mikologia-jarduerak abian ipini dituzte. Barikuan, urriaren 21ean, Gortzen hasiko dira berta-

ko 15. Perretxiko Jardunaldiak. Herriko zortzi tabernatan artisauro-urritoa eta perretxiko-pintxoak eskainiko dituzte aste-akabu osoan. Gainera, zapatu goizean, 07:30ean, Eliz plazatik Murgiarra irtengo dira, autobusez, mikologia-txangoa egin eta bilketan jarduteko. Autobusean izena emateko, aurretik bost euroko fidantza ipini behar izango dute, kultur etxean. Murgian batutako ondoak domekan

erakutsiko dituzte, San Pedro plazan. Era berean, Turismo Bulegoak antolatutako perretxikoen argazki- eta pintxo-lehiaketan sariak emango dituzte. Plentzian, ostera, urriaren 24an abiatuko dute XIX. Perretxiko Astea, Goñi Portalen argazki-erakusketa ipinita. Azaroaren 6an, ordea, perretxiko-erakusketa, umeentzako lehiaketa, dastaketa eta sari-banaketak izango dira. Algortan ere, hamaika ekimen izango da urriaren 22tik azaroaren 7ra, Basozaleak elkarteak antolatuta. ◀

info+: Basozaleak.com
argazki-lehiaketa: turismo@gortzen.net

Hitza emanda



Perretxikotara

Udazkenean udak badauka segida, baina, kontuz, Amalur gaixotzen ari da... Otzara eta makilaz bazoaz mendira, zer egiten diozun arretaz begira!



GALDER BILBAO MARTINEZ TXAPI
Bertsolari udondotarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Bea Salaberri idazleak Baionak ez daki liburuaz berba egingo du Algortan, UKITXek gonbidatuta

Egizu elkarteak antolatuta, datorren egunean, hilak 27, Bea Salaberri Larre idazleak parte hartuko du Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoan (UKITX). Hitzordua 19:30ean ipini dute, Algortako Torrene aretoan. Berak idatzitako *Baionak ez daki* narrazio laburren liburuaz berba egingo du Salaberri. Bere lehenengo narrazio-liburu horretan eguneroko bizitzako gertakari sinpleetan eta nemiñoetan ipini du arreta. Salaberri ondo baino hobeto ezagutzen duen lekuan kokatu ditu istorioak, azken 15 urteotan Baionan bizi izan delako, Nafarroa Behereko Donamartiri herrikoa bada ere. Ekitaldi hori Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan ere kokatu du Getxoko Udalaren Euskara Zerbitzuak, Euskal Kultur Erakundeagaz elkarlanean. Bestalde, Egizuk Torrene Aretoa aukeratu du «argiHizkiak erakusketaz ere gozatu ahal izateko». ◀

info+: Hanetahemen.blogspot.com

#bbt16 Kanporaketa
www.bertsozale.eus/bizkaia/txapelketa

Bizkaiko bertsolari txapelketa 2016

LEIOA

Kultur Leioa Auditoriumean

Urriaren 29an, 17:30ean

Ander Elortegi Garatea,
Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia,
Joseba Artza Zubillaga,
Joseba Barandiaran Andueza,
Mikel Goinena Larrazobal,
Txaber Altube Sarriñandia

Gai-jartzailea: Idoia Anzorandia Kareaga

Antolatzailea

Babesleak

Logutzailea



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN
Emak-Umea eta Pertson-Ona

Io sto con la sposa. Eta zu? Norekin zaude?

Film Sozialak Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiko epaimahaikide izateko gonbitea egin didate aurten. Gustura onartu ere. Zinema gizarte-eraldaketarako tresna gisa lelopean aurkeztu dira 86 film. Horietako bat oraindik buruan daukat, *Io sto con la sposa*. Lau egunetan egindako 3.000 kilometrotako bidaia. *Road moviaren* abiapuntua, Italia. Helmuga berriz, Suedia. Bidaia-lagunak: Lampedusatik Milanera heldutako 5 errefuxiatu, errefuxiatu siriar eta palestinarak. Euren ametsa, Suediara heltzea, bertan asilo politikoa eskatzea errazagoa omen delako. Baina, nola lagundu papeirik gabekoak bidaia arriskutsu horretan? Nola gainditu Europa izeneko gotorlekuaren hesiak, mugak, kontrolak? Horra hor Gabriele del Grande kazetari italiarraren buruhaustea. Konponbidea, surrealista bezain bikaina, hauxe: asmatutako eztei-bidaia. Izan ere, nork geldiaraziko du eztei-jantzia daraman emaztegaia?

Gutzira, 23 lagun abiatuko dira. Ezkongaiak (faltsuak) eta euren gonbidatuak (faltsuak), 5 errefuxiatuak eta errefuxiatu horiek lagundu nahi dituzten italiarrak. Kartzela-zigorra jaso dezaketela (15 urteko kartzela-zigorra) jakinda ere, errefuxiatuen egoeraz jabetuta, errealitate hori aldatzeko prest dauden herritarak, solidarioak. Bidaia, dokumentala eta ezteitako jantziak erosteko beharrezko finantziazioa: herria, berriro ere. *Crowdfundingaren* bitartez ekoiztutako pelikula da *Io sto con la sposa*. Drama eta komedia, errealitatea eta fikzioa, desobedientzia zibila eta gorbatak, guda eta ezkontza. Europako parlamentura heltzea lortu duen benetako istorioa. Desobedientzia zibilaren aldeko kantua. Gauzek desberdinak beharko luketelako. Gauzak desberdinak izan daitezkeelako... ◀



Abasolok uste du bigarren denboraldia egingo dela, «shareko zenbakiak onak direlako eta jendea pozik geratu delako saioagaz».

«Nork bere burua gainditu du Gailurra programan»

Jon Abasolo Salvador zuzendari algortarrak *Gailurra* telebista-saioa filmatu du. Eguenero ikus daiteke ETB1-en, 22:15ean.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Zer da *Gailurra* saioa?

Mendiak ezagutarazteko saioa da. Bada jendea mendizalea ez dena eta programa honen bidez gure mendiak ezagutu ditzake, hainbat pertsonen historien bitartez. Gugaz hainbat herritar berezi igo dira mendira. Batzuek mendia ondo ezagutzen dute; beste batzuek, ez. Hala, ikusleak pertsonak ezagutuko ditu mendien bitartez eta mendiak ezagunagoak egingo zaizkio, pertsona horiei esker.

Gailurra mendi- edo kirol-programa ez dela azaldu duzue.

Gailurrera igotzen denak kirola edo bizitza osasuntsua gogoko ohi ditu; mendiko bizitza horri ematen diogu garrantzia guk. Baina era berean historia pertsonalak kontatzen ditugu, batzuk mendiari lotutakoak. Nork bere burua eta bizitzako esperientziak gainditzeko istorioak ere badira.

Denboraldiko kapitulu denak grabatuak dituzue. Zer ikusiko dugu?

Gorbeian bide ezberdin bi ikusi ge-

nituen: arruntena, Pagomakurretik; eta, ez-ohikoena, Itxinatik, jende asko galtzen den lekutik. Bertan mutil batek neskalagunari ezkontzeko eskatuzio eta 93 urteko gizon bat mendira igo zen bere alabagaz, azkenengoz. Bigarren saioa Txindokin izan zen, niretzat politena. Han leku beretik igo ginen guztiok, nahiz eta batzuk Tximista bide zailetik ere pasatu. Hirugarrenean, Cruz del Castillora joan ginen; batzuk Lagrandik eta beste batzuk Guardiatik; gugaz umedun zegoen

“Gorbeian, 93 urteko gizon bat mendira igo zen bere alabagaz, azkenengoz”

emakume bat igo zen eta beste bat itsua dena. Laugarrena Orhi mendia izan zen, Zuberoan, bi egunean. Bertan, Oltzarteko zubia ezagutu eta afarria prestatu genuen Sohütako ikastolan; oso polita da. Niko Etxartegaz eta hango irakasleakaz eta gurasoakaz egon ginen. Bosgarrena Hernio mendia izan zen, programaren mendi baxuena, baina gipuzkoarrentzat oso garrantzitsua. Seigarrena eguen honetan ikusiko dugu: Beriain. Unanutik hasi genuen ibilbidea; batzuk, oinez eta

beste batzuk, bizikletaz. Zazpigarren eta azkenengo mendia Anboto izango da; Mariren kobazulotik pasatu ginen.

Saioak EITB Nahieran ikus daitezke?

Bai, lehenengo bostak, bai.

Nondik irten zen saioa egiteko ideia?

Ez dakit. Ni heldu nintzenerako proposamena aurkeztuta zegoen. Zuzentzeko kontratatu ninduten.

Zelangoa izan da Irati Anda eta Andoni Aizpuru aurkezleekiko harremana?

Oso ona eta oso garrantzitsua izan da. Grabazioak ordu askokoak dira, nekagarriak askotan; erritmoa oso motela da, apurka-apurka doa eta haiek lortu dute jendea gustura egotea. Iratiren lehen aldia zen aurkezle moduan eta oso ondo egin du; etorkizun oparoa izan dezake. Andoni ezagunagoa da; plazera izan da beragaz lan egitea.

Zer iruditu zaizu *droneak* erabiltzea?

Oso ondo. Aurretik Ibai Egurrola [drone-operadorea] ezagutzen nuen eta beragaz oso erraza da lan egitea. Droneagaz, osteraz, zaila da, denok alendu behar dugu grabatu ahal izateko; zazpi edo zortzi aldiz errepikatu... Baina gero dena oso polita irtetzen da telebistan. Orhi mendian drone bat galdu genuen, lainoa zela-eta, agian kondentsazioagatik. Artzainak topatzen ahalegindu dira, baina ez da agertu. ◀

«Erregimen heterosexualak erori behar du; iraultzaz apurto behar dugu»

Kitzikan sexu-askapenerako mugimenduak homofobia gaur eguneko kontua dela salatu zuen martitzenean, urriak 18, Getxoko Justizia Jauregiaren aurrean. Iazko apirilaren 6an Algortan gertatutako eraso homofoboaren egileak epaitu zituzten bertan. Hala ere, «liskar bat izan balitz bezala» epaitu dutela salatu dute Oier Lartategik eta Ekaitz Herrerok, Uribe Kostako Kitzikaneko kideek; horren adibide da erasotuari berari ere epaiketa egin izana.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zein irakurketa egiten du Kitzikanek iazko eraso homofoboaren inguruko epaiketen inguruan?

Ekaitz Herrero San Martin: Kasu gehienetan bezala, ezta oraingoan ere, fiskalak ez du aintzat hartu gorroto-delitua; kaleko liskar bat izan balitz bezala epaitu dute. Erasoak izan zitzakeen konnotazio politiko eta sozial guztiak alde batera utzi dituzte.

Oier Lartategi Fernandez de Retana: Lotsagarria da. LGBT erakunde klasikoek izugarritzko borroka egin dute urteetan epaiketetan ere gorrotoaren terminologia onar dezaten; argi dago sistema honek ez digula inolako bermerik eskaintzen.

Jendartean ere horrelako erasoak liskar hutsa legez hartzen direla uste duzue?

E.H.: Eraso matxistekin gertatzen den bezala, momentuan bertan erantzun irmoa ematen zaie horrelako gertaerei; baina, gero, ahaztuta geratzen dira.

O.L.: Erasotzaileak arrazoiren bat izango balu bezala gorpuzten dira askotan eraso hauenganako erreakzioak. Horren lekukoak eta inguruan dauden elementu guztiak egonda ere, ez dute aintzat hartu homofobia-kasu argia izan zela iazko apirilaren 6an Algortan gertatutakoa. Horrek adierazten du zein puntutaraino hartzen gaituzten bigarren mailako biztanletzat maritxu, *bollera* eta transexualak. Beste alde batetik, Ertzaintzaren jarrera nahiko penagarria eta lotsagarria izan zen; eraso gertatu eta pare bat egunetara ikusi genituen erasotzaileekin kalean berbetan, lasai asko.

Baina, iazkoa ez da gertaera isolatu bat, ezta?

E.H.: Egon badago nolabaiteko eztabaida, handitzen ari dena da erasoen edo salaketen kopurua. Argi dago erasoak areagotzen ari direla. Badaude arazo larria daukaten gazteak, edo belaunaldi berrietakoak, ez soilik homofobiaren kasuan; baita matxismoari eta arrazakeriari ere dagozkienez. Europa

“ Umeak garenetik, urdinez ala arrosaz janzten gaituzte...; hortik aldentzen garen guztiok kolpatuak gara beti ”

osoan ikus daiteken fenomeno da; erasotzeko grina ez da egun batetik bestera sortzen den kontu bat, jendartearen gabezia baten isla dira erasoak.

O.L.: Datuak mahai gainean jarrita, 90eko hamarkadan gaur egun baino eraso gutxiago ematen ziren Euskal Herrian. Gehienbat, Bilbon egin dira zenbaketak eta ematen zuen homofobia handiagoa zela urte horietan; baina, zenbakiak ez dute gezurrik esaten: gaur egun eraso gehiago daude. Gainera, beti izan dugu buruan erasotzaileak izan behar zuela pertsona nagusia edo kanpotarra; marokoarra edo horrelako kultura-ereduetan hezitakoa. Ez da horre-

la: azken aldia ikusten ari gara erasotzaileak bertokoak, mutil gazteak, zuriak eta dirudunak dira; ez dira baztertutako edo formaziorik gabeko pertsonak. Kontzienteki ez dituzte euren buruak faxistatzat hartzen; baina, modu inkontziente batean, behintzat, faxista hutsak dira.

E.H.: *Queer* mugimenduak zapuztu beharreko hiru erregimen daudela aipatzen du. «Nik daukat boterea, zure heriotza kontrolatzen dudalako» izango litzateke erregimen tanatopolitikoaren premisa nagusia; armaden eta Elizaren bidez bermatzen dute hori. Denok ezagutzen dugun erregimen biopolitikoak, berriz, ondokoa ematen digu ulertzer: «nik daukat boterea, zure bizitza kontrolatzen dudalako; eskolaren, familiaren, espetsueen... bitartez». Azkenik, oso berria den erregimen bat ere badago: «nik daukat boterea, zure inpultsoak, sentimenduak eta desirak kontrolatzen ditudalako», esaten digu azken horrek. Interneta zein pornografia erabiliz kontrolatu nahi gaituzte; baita terrorismo-alerta egoera gora ala behera aldatuz ere. Hirugarren horretan huts egingen ari dira belaunaldi berriak; esan ohi da, gazteek gauzak berehala gura dituztena.

Eraso fisikora heldu barik egongo dira bestelako eraso motak, ezta?

O.L.: Bizi dugun jendarte-eredu honetan, leku guztietan daude txertatuta heterosexualitatea eta erregimen horren beso guztiak. Goizetik gauera arte, gizona, heterosexuala eta zuria den pertsona-modu



baterantz bideratzen gaituzte erreferentzia guztiek. Maritxuak, *bollerak*, lumadunak edo transak gare-nok ez daukagu inolako botererik; beti gaude azpitik. Esaterako, telebistan pailazoak edo txarangazaleak izango bagina bezala jartzen gaituzte beti. Horrek eragiten du sufritzen ditugun erasoek erabateko ba-besa bereganatzea. Umeak garenetik, kolore urdinez ala arrosaz jantzen gaituzte...; hortik aldentzen garen guztiok, zuzenean ala zeharka, kolpatuak gara beti.

E.H.: Gainera, argitu beharra dago homofobiaz hitz egiten dugunean, askotan nahasten dela gayfobia-rekin. Ez da gauza bera; homofobiaren barruan, gay-fobia, ninfobia, lesbofobia, transfobia, interfobia eta oso gutxitan aipatzen den serofobia edo HIESa daukaten pertsonen kontrako jarrerak daude; baita sexofobia bera ere. Azken horretan, sexu-langileak kokatuko genituzke. Esaterako, Bilbon daukaten ordenantzarekin, sexu-langileak etengabe pairatzen ari dira homofobia.

Azken finean, heterosexualitatea ez da aukera bat, erregimen politiko totalitario bat baizik. Ondo baino hobeto dakigu horrelako sistemek zer eragiten duten: gizon zuria, heterosexuala eta europarra da erregimen horren eredu, eta horretatik kanpo da- goen guztia ez dute inolaz ere onartzen. Batzuetan palestinarrek gutxiesten dituzte, beste batzuetan ju- duak, animaliak beti, eta homosexualak zein *bolle- rak* zer esanik ez. Ez da gauza puntual bat; egunero gertatzen da, sistema guztia oinarrituta dagoelako totalitarismoan.

O.L.: Ume bat begiratzen duzunean ere pentsamolde hori daukazu buruan.

E.H.: Inork ez du erabakitzen heterosexuala izatea.

Zelan ekidin daitezke horrelako erasoak?

E.H.: Erregimena eroraraztea beharrezkoa da; hau- tsi, apurtu behar dugu. Iraultza da hori lortzeko

“ Arrazista, homofobia eta matxista da Euskal Herriko jendartea; eskualdea ez da salbuespena ”

bide bakarra. Hortik aurrera, denok argi eduki behar dugu matxismoa eta homofobia ezin direla errefor- matu; faxismoa ezin da erreformatu.

O.L.: Ingurugiroarekin edo pobreziarekin kontzien- tziatuta dagoen pertsona bati galdera bera egin die- zaiokizu; baina, nik behintzat ez dut uste lege berri bat atera beharko litzatekeenik gutxiago kontamina- tzeko, edo txiroak direnak diru gehiago eduki deza- ten. Sistema apurtu eta errealtatea beste modu ba- tean eraikitzea beharrezkoa da.

Dagokigun gaira bueltatuz, bitarte horretan, gau- zek nola joan behar duten aldatzen galdetuta, ba-

tzuk diote apurketak zuzena eta aurrez aurrekoa izan behar duela. Itxuratik hasi beharko ginatke, luma- ren aldeko apustua eginez edo maritxua, *bollera* edo transak garela aldarrikatuz. Izan ere, erakundeek egiten dituzten homofobiaren kontrako kanpainak azalean gelditzen dira beti. Gainera, konturatzen has- gaitzen instituzio horiek direla gure integritate fisi- koa arriskuan egotearen erantzule zuzenak; ez dute inoiz ezertxo ere egin gure integritate fisikoa zain- tzeko eta betidanik kolpatu izan gaituzte. Kitzikane- k urteak daramatza erasoek kontrako kanpainak egin ditzaten eskatuz; azkenean nekatu egin gara. Insti- tuzioak erantzuleak ere badira; azken finean, erregi- men heterosexuala mantentzen dute.

Uribe Kostan zelakoa da egoera?

O.L.: Euskal Herri mailan herriz herri ematen diren egoerak oso berdintsuak dira. Argi dago ez dela gau- za bera, adibidez, Bilbon, maritxu, *bollera* zein trans giroko guneetan edo La Bilbainan eroso-eroso bizi- tzea. Baina, azkenean, homofobia eragiten duten egoerak leku guztietan berdinak dira. Eskualdea zein puntutaraino da homofobia? Ba, ez dakit...

E.H.: Jendartea homofobia da beti, leku guztietan. Onartu behar dugun gauza bat da arrazista, homo- fobia eta matxista den jendarte batean bizi garela. Hori horrela da: arrazista, homofobia eta matxista da Euskal Herriko jendartea; eskualdea ez da sal- buespena. Urte asko igaro dira jada Stonewalleko matxinada gertatu zenetik eta eraiki duten irudia, batez ere LGBT antolakunde erreformista horien es- kutik, erakusleho baten modukoa da: «heterose- xualek bezala maitatu nahi dugu, heterosexualak bezala ezkondu nahi gara, baita eurek bezala banan- du ere». Hori ez da gure estiloa; Stonewalleko matxi- nada gertatu aurretik eta bitartean, guk bageneukan antolatzeke eta elkarren artean harremanak izateko beste eredu bat.

O.L.: Ez dugu heterosexualitatearen kopia akas- dun bat izan nahi. Ezkondu, umeak izan... eredu hori ez dugu osasuntsua ikusten; ez dugu guretzat nahi.

Zein jarduera garatzen dituzue zuen ikuspuntuak zabaltzeko jendartean?

E.H.: Urriaren hasieran Leo Silvestri (Buenos Aires, Argentina, 1976) *queer* pentsalari eta ekintzaile ar- gentinarra ekarri genuen Euskal Herrira; Beatriz Preciado (Burgos, Espainia, 1970), Michel Foucault (Poitiers, Frantzia, 1926 - Paris, Frantzia, 1984) eta holakoak urrun geratzen zaizkigu. Horretaz gain, As- turiasen egon gara hango antolakundearekin, lehe- nengo pausoak ematen.

Zein da jendartea mugiarazteko modurik onena?

E.H.: Gure ustez, jendea mugiarazteko modurik ego- kiena konfrontazioa bilatzea da; borroka hori da jen- dartea bera, nolabait, hezten duena. Aldi berean, heziketa eta borroka ezin dira elkarrengandik bana- tu; borroka horrek erakusten digu zer nolako inda- rrak dauzkagun eta gure helburuak zeintzuk diren. Lehen esan dugun moduan, erregimen totalitario ba- tean bizi gara. Batzuk egunero sumatzen dugu; bes- te batzuk, ordea, bakarrik parrandan daudenean eta guardia zibil bi agertzen direnean tabernan. Horren kontra egiteko konfrontazioa besterik ez dago; gure ustez, konfrontazio horri esker pizten dira nahiak eta indarrak. Horrek ematen du gauzak argitasunez ikusteko aukera. ◀



Antolakuntzak eskubidea dauka ibilbidea aldatzeko eta proba osoa edo zati bat neutralizatzeko.

Mendi Traila bigarren antolatuko du Euskal Herriko Unibertsitateak, datorren urriaren 30ean. Kirolzaleek 13 kilometro bete beharko dituzte, Erandio eta Leioatik.

EHUko II. Mendi Traila urriaren 30ean, domekan, izango bada ere, lasterketan parte hartzeko izena ematea derrigorrezko da, eta hori urriaren 27a, eguena, baino lehenago egin beharrekoa. Izen-ematea doakoa izango da parte-hartzaile denentzat, izan unibertsitateko kideak ala ez. Dena den, proban inskripzioa egin ahal izateko interesdunek 18 ur-

teak beteta izan beharko dituzte. Era berean, 750 atletak izena eman ahal izango dute, gehienez ere. Gainera, EHUKo ikasleek Gradu ikasketetako 0,5 kreditu lor dezakete, ezarritako denboran proba amaituz gero. Lasterketa urriaren 30ean egingo da, goizeko 10:30ean. 13.000 metroko ibilbidea EHUKo Kiroldegitik irtengo da, Leioako campusaren ondotik. Zirkuitua leku

berean amaituko da, Erandion. Korrikalariak txipa eroango dute soinean, lasterketa ondo kronometratzeko. Probak maila bi izango ditu: bata, orokorra, parte-hartzaile denentzat; bestea, EHUKo ikasleentzat. Hala, gizonezkoen eta emakumezkoen ataletan, hiruna irabazleri garaikurra emango diete, unibertsitateko lehenengo emakumezkoari eta gizonezkoari bezala.

Balizko kanporaketak

Hainbat segurtasun-arau ezarri ditu Mendi Trailean antolakuntzak, «proba ahalik eta ondoen egituratzeko». Hala

kontrol bi izango dira, atzeratuta dabilzan korrikalariak probatik kanporatzeko. Bosgarren kilometroan 45 minutuko denbora-muga gaindituz gero partaideak lasterketatik kanpo lotuko dira. Era berean, lasterketa hasi eta ordu bi beranduago kirolariak zirkuitutik kanpo aterako dituzte. Bestalde, «probako arauak hausten badituzte», parte-hartzaileak kanporatzeko eskubidea du antolakuntzak. Sailkapena Internetez argitaratuko dute lasterketa amaitu eta gutxira. ◀

izen-ematea: Ehu.eus/eu/web/kirolak-bizkaia
emaitzak: Turesultado.es

Egurrola eta Hernández finaletik kanpo daude

Oihane Hernández eta Damaris Egurrola Erandioko Betiko Neskak taldeko jokalaririk onenak. Emakumezkoen 17 urte azpiko Munduko Futbol-txapelketaren finaletik kanpo geratu ziren pasa den astelehenean, jokatu barik. Ohiko zuri-urdirak eta gaur egun Athleticeko jokalaririk Jordanian daude egunotan, Espainiako selekzioagaz batera. Euren badiara beste zuri-gorri bi: Leyre Monente eta María Blanco. Euretako batek ere ez zuen parte hartu Japoniaren aurkako asteleheneko partidaren. Espainiako selekzioak 3-0 galdu zuen. Espainiarraren erronka ez zen erraza, Japonia baita munduko kopa altxatzeko se-

lekzio faboritua. Asiakoak finalurrerora ailegatu ziren jokaturako lau partidak irabazita; Amerikako Estatu Batuak, Ghana, Paraguay eta Ingalaterra, azken hori final-laurdenetan. Astelehenean, Takahasik estreinatu zuen markagailua, 14. minutuan. Handik aurrera partida aldats gora ipini zitzaion Espainiako selekzioari. Bigarren gola Lucía Rodríguez Espainiako kapitainak sartu zuen, bere atean. Azkenik, Takahasik bere bigarren gola sartu zuen, partida amaitzeko 15 minutu falta zirenean. Hernándezek eta Egurrolak brontzezko domina irabazteko aukera izango dute bariku honetan, 16:00etan, Venezuelaren aurka. ◀

Europako txapeldunak: Jaurena, Pérez eta Pla

Getxo Rugby Taldeko hiru jokalaririk Europako Errugbi Txapelketa irabazi zuten pasa den zapatuan, Madrilan. Txapeldunak Bárbara Pla, Saioa Jaurena eta Carmen Pérez dira. Hiru Espainiako selekzioagaz jokatu zuten Herbehereetako selekzioaren aurkako finalean eta 35-7 nagusitu ziren. Bárbara Plak norgehiagoka osoa burutu zuen, Carmen Pérez atsedendian zelairatu zen eta Saioa Jaurena bigarren zatiko erdialdean sartu zen. Carmen Pérezek azken aurreko entsegu egin zuen, 30-0 emaitza ipiniz markagailuan. Orditik aurrera, holandarrak oso ondo egon ziren defentsan eta aldea ez zen larregi



© RUGBY EUROPE

handitu. Europako Txapeldun izendatu izanak apur bat hurbilago utzi die Getxokoei Irlandan datorren urtean jokaturako Munduko Txapelketan parte-hartzea, baina horretarako Espainiak partida bitan garaitu beharko du Eskozia, azaroaren 19an eta 26an. ◀

Pausoz pauso, helmugaraino



Ehunka lagunek parte hartu ohi dute Berangoko kirol-hitzorduan.

Udagoienagaz batera, 34. Ibilaldi Neurtua antolatu du Berangoko Sei Herri kultur elkarteak. Domekan, Uribe Kosta zeharkatuko du ibilbideak. Goizean goiz hasiko dira izen-emateak Sei Herri tabernan. Nagusien kasuan 08:15ean izango da, eta txikiek, ostera, 09:00etan egin beharko dute. Ordu horretan aterako dira helduak, eta txikiak, berriz, ordu erdi beranduago. Nagusien ibilbideak 16 kilometroko luzera du, eta, txikienak, 8 kilometrokoa; antolatzaileek gogorarazi dutenez, «40 urte dituzuenok aspaldi utzi zenioten txiki izateari!». Mendi-bueltaren ostean, azoka ekologikoa egongo da Sabino Arana kalean, eta nagusiek tri-

ki-poteoa izango dute aukeran Sabino Aranako tabernetan, txikiek frontoia- ren aurrean jolas-tailerregaz gozaten duten bitartean. Txikiek 14:00etan, «makarroi goxo-goxoak bazkalduko dituzte», eta ordubete beranduago-edo, nagusien txanda helduko da: «indaba goxo-goxoak, herriko sukaldarien eskutik!». Umeen bazkaria doakoa izango da parte-hartzaileentzat; helduena, bertan erosi ahal izango da 7 euroan. Bazkariaren ostean, umeek zinema izango dute Berangoeta kultur etxean. Helduen bazkariaren ostean, sari-banaketa hasiko da. Antolatzaileek herrian egingo duten merkataritza-gune berria kritikatu dute daborduko. ◀

info+: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com

Gobelak harrera egingo die olinpiar kirolariei

Arenas futbol-klubak gorazarre egingo die Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan eta Joko Paralimpikoetan lehiatu ziren Getxoko bost kirolariei. Ekitaldia zapatu honetan izango da, Gobelan, 18:00etan; Jon Pérez Boloren taldearen eta Logroñesen arteko partidaren aurretik. Hala, klub gorri-beltzak hainbat opari emango dizkie Asier García saskibaloijokariari, Bárbara Pla errugbilariari, Rocío Ybarra eta María López de Eguilaz hockey-jokalariei eta Jonathan Castroviejo txirrindulariari. Gainera, ohorezko satea eskainiko die bostei.

Horrez gainera, klubak Olinpiar Jokoakaz duen harremana gogoraraziko dute Areetakoek. Izan ere, Arenaseko Pagaza, Sesumaga eta Vallana futbol-jokalariek zilarrezko domina lortu zuten 1920ko edizioan, Espainiako selekzioagaz. Kasu berean dago Asier García; Bilbon jaiotako getxoztarrak zilarrezko domina jantzi zuen egokitutako saskibaloian, Espainiako selekzioagaz. Beste lau kirolariek olinpiar diploma eskuratu zuten. Halere, Bárbara Plak Europako Errugbi Txapelketa irabazi berri du eta Castroviejok brontzea lortu du mundialean. ◀

Jon Rhamek bigarren denboraldiari ekin dio

Jon Rahm sasoi onean estreinatu da PGA Tour lehiaketan, bere bigarren denboraldian. Barrikoztarrak 15. postuan amaitu zuen Kaliforniako Napa konderrian jokaturako Safeway Open sariketan, AEBetako zirkuituaren lehenengo proban. Rhamek par azpitik bost kolpe egin zituen laugarren eta azken ibilbidean, zortzi zultan birdie bana egin ondoren. Denera, par azpitik 12 kolpe egin zituen, Brendan Steele-ren sei kolpeetara. Rhamek ikuskizuna eman zuen lehenengo egunean, azken zuloa kolpe batez egitean, «zulora batean» testua idatzita zeukan



Rham munduko 123. golf-jokalaririk onena da.

pilota bategaz. Hurrengo egun bietan, par azpitik kolpe bat eta par besterik ez zuen lortu. Halere, ez zuen etsi, eta azken egunean zazpi postu berreskuratu zituen probaren sailkapenean. ◀

Renault TALISMAN

Sentitu kontrola

Renault Talisman gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,6 eta 6,0 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 95 eta 135 bitartean.

Renault gomindatzen du

renault.es

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri



Sokatik tireka

JONE
ZARRAGA EGUSKIZA
Herrikoia

Geureagaz be egin geinke aurrera

Pasau da daborduko hila-betea nazioarteko abenturatik bueltatu gintzela, baie ondino be lotuten daku han bizitakoaren ahoko gustu ona, zirraratxue sentiten dogu hangoaz gogoratzen garenean, erretratuk ikusten doguzenen, kameretan gordetakoak eta geure burun gorde genduzenak; behin eta berriz pasetan doguz horreek gure burutik... ze goxo!!!

Gure azkeneko abenturatu hori Suediako Malmö hirian izen zan. Gure herri txikia herri handi ei diren horien artean handi egin da, edo pareko bai gitxienez; zertan? Ba geure dan zeozetan, beti Euskaldunen kirola be izan den zeozetan, herri-kirola deritzogunean Euskal Herrian, baie mundu duztin zabaldu daun kirolan, baita iraganean olinpikoa izandako kirolan: Soka-Tira/*Tug of War*!!

Handi horren duztin arten be handi izeteko ez dogu ezer barririk inbenta behar izen, gureagaz, gure herrian eta gure kulturaren ondo errotuta egoan kirolagaz imini dogu Euskal Herria mundun eta gailurren.

Gaur bertan hartu dogu TWIFTik, azkenengo Mundialan oinarrituta, lur ganeko sokatiran Munduko rankina, eta Basque Country hirugarren agertan da, Suitza eta Taiwanen atzetik; gure atzetik: Suedia, Hego Afrika, Holanda, Alemania, Ingalaterra, Irlanda, Gales eta abar; 25 herrialde ezberdin arte.

Baina ezin da erlaxatu! Pasatutakoaz disfruta du eta oin lanari ekin behar dako, lurreko botak kendu eta zapatilak imini goma ganeko denboraldia dator-eta; laster hasko da goma ganeko Euskal Herriko Txapelketa. Eta behar du bultzada sokatirak Euskal Herrian, ze kanpon puntan bagabiz be, ez deko talde askorik etxen. Eta 2020an etxen izango du Lur gaineko Sokatira Mundiala, Getxon. Emon beharko dako horri be Basque Country kolorea! ◀



Lanak oso aurreratuta daude.

Lanari babesa

Goiherri sokatira-taldeak entrenatzeko aterpe berria estreinatu ahal izango du hemendik denbora gutxira.

Goiherri auzoko sokatirarako entrenamendu-azpiegitura amaitzean daude, lanak egin dabilzan Protec SL enpresak baieztatu duenez. Beharginak Goierriko antzinako eskolen ingurua atontzen dabilza, egurrezko egitura biri azken ukituak eman bitartean. Lehenengo azpiegiturak 36 metroko luzera eta 4 metro pasatxo dauzka zabalera. Bestea dezente laburragoa da, 20 metroko luzera dauka. Lehenengoan, Goierriko tiralariak talde biren arteko entrenamendua egin ahal izango dute, busti barik, euria dabilen egunetan. Bigarrenetan, talde bakar baterako entsegu-gunea dago; bertan,

erronka da polea batetik eskegitako pisuak altzatzea. Orain arte, egun euri-tuetan, metalezko xafla batek babestuta bakarrik egin zezakeen bigarren ariketa sokatira-taldeak. Klubak Suitzian ezagutu zuen horrelako sistema, eta etxean baliatzea pentsatu zuen. Lanek 60.000 bat euroko kostua dutenez, hainbat kontaktu izan dituzte talde politikoakaz. Joseba Goikouria alkateak eta EAJk zein EH Bilduk iaztik defendatu dute ekimena, eta aurtengo aurrekontuetan sartu zuten. PSE-EEk ere bat egin zuen proiektuagaz, Legegintzaldirako Planean. Laster, Goierriko kirolariak 2020ko Getxoko Mundiala prestatzen hasi ahal izango dira. ◀

Umedun, umetxo eta familientzako uretako ekintzak

Pasa den zapatuan, Getxo Kirolak erakundeak hasiera eman zion umedun daudenentzat eta umetxoentzat antolatutako uretako doako jardueren denboraldi berriari. Getxo Kirolaren ekimena abonatuentzat zuzenduta dago, eta aurten, gainera, zapatuero eskainiko dituzte jarduerak, goizez, Gobelako igerilekuan. Hala, erditze aurreko eta osteko saioak 09:30etik 10:10etara izango dira; umetxoena, berriz, talde bitan banatuko dira: 10:15etik 10:35era (sei eta 18 hilabete arteko umetxoak) eta 10:40tik 11:00etara (18 eta 36 hilabete arteko umetxoak). ◀

izen-ematea: 944 308 070 / 944 045 151

De la Puertak Kanarietako saria irabazi du

Lucía de la Puerta Neguriko irabazi du Gran Canaria Yellow Bowl ITF lehiaketa. Balentria hori pasa den urriaren 9an egin zuen Jolaseta klubeko tenislari gazteak; urriaren 3an abiatutako sei eguneko lehiaren ostean eskuratu zuen garaikurra. Bikotekako modalitatean nagusitu zen De la Puerta, Guiomar Maristanygaz batera. Hainbat fase gainditu ondoren, bikoteak aurre egin zion Leonie Kung suitzarrak eta Vivian Wolf alemanak osatutako bikoteari. Final horretan 7-5 eta 6-4 nagusitu zen Jolasetakoaren taldea. ◀

info+: Jolaseta.com

Gol-zaparradak amaitu dira Eskola Kirolean

Bizkaiko Futbol Federazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat aldaketa egin dituzte Eskola Kirolaren arautegian, hasi berri den 2016/2017 denboraldiari begira. Berritasunen artean nabarmenena da alde biek izendatutako «alde handiko emaitzak» puntua. Aurrerantzean, «talde batek hamar gol baino gehiago sartu eta bost gol edo gehiagoko errenta lortzen duenean, aktak itxi egingo dira. Partidak segituko du, baina ez dira kontuan hartuko ordutik aurrera lortutako golak». Horrela adostu dute erakunde biek, Iñaki Gómez Mardones Bizkaiko Futbol Federakundeko

presidentek eta Carlos Sergio Achtegi Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzuko aholkulari orokorrak sinatutako dokumentuaren arabera. Neurri horri esker, hainbat egunkaritan edo sare sozialetan publikatzen diren Eskola Kiroleko emaitzek isekarako bide laburragoa izango dute galdu egin duten taldeentzat. Halere gol-kopurua ez da Federazioak eta Aldundiak egindako aldaketa bakarra. Adibidez, zarpiko futbolearen, nesken umeen mailako partidek 35 minutuko iraupena izango dute aldi bakoitzean, eta ez 30 minutuko, orain arte bezala. ◀



© JOLASETA

Getxoztarrak, EAEko txapeldun

Mercedes Aristegui eta Diego Chávezek, hurrenez hurren Jolaseta-ko eta Fadura klubetako kideek, irabazi dute Euskadiko Txapelketa absolutua. Finala pasa den urriaren 9an jokatu zen, Gasteizen. Finaleko beste biak ere uribekostarrak izan ziren: txapeldunordeak, Fadurako Naiara Uriarte eta Jolaseta-ko Pablo Innerarity izan ziren. ◀

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



*Bizkaiko
Bertsolari
Txapelketako*

*Udagoieneko faserako
2 sarrera bikoitz
dauzkagu.*

Gura dituzu?

Urriaren 29an, zapatua, 17:30ean,
Kultur Leioako entzungelan

Urriaren 26a baino lehenago,
helarazi erantzuna,
zure izen-deiturak eta
harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus
edo 944 911 337

Zorion ^{5€}
agurrak

Urtebetetze,
ezkontza zein
jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
944 911 337



ISABEL
BILBO
Zure semetxoan
partez

Zorionak, Isabelita! Ardoa bezalakoa zara zu! Urte bat gehiago, eta gero eta ederragoa zara! Alaitasunez betetzen gaituzu guztiok, maite zaitugu!



TERE
URIBARRI
Figuren partez

Urteak bete eta zer uste zenuen ba zorion-agurrik ez zenuela edukiko? Gura baino gutxiago elkar ikusten dugun arren, besarkada handia zuri, Jorgeri eta Maitane txikiari! Zorionak!



TXITXO
ASTRABUDUA
Kuadrillaren
partez

Zure urtebetetze-egunean ebakuntza egitea ere... Ez da, ez, oparirik gogokoena. Eskerrak larria ez denik. Horrek ez dizu oztoporik sortuko zure urtebetetzea ospatzeko. Zorionak!

Sudokua

4		1						2
		2			1			
8	6		7	5		1		
				6	8	7		
3					9			8
			2	1				
	8			2	4			
		6				8	1	
								9

Gogoan hartu 1etik gra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

4	6	2	7	8	9	3	1	5
7	1	8	3	6	5	9	4	2
9	5	3	4	2	1	7	8	6
6	3	9	5	4	3	8	7	9
1	8	1	6	9	4	7	5	3
5	7	2	5	8	6	3	4	1
3	4	1	2	5	7	9	6	8
8	6	8	1	4	5	6	7	3
2	7	9	6	3	8	1	5	4

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Sentibera sentituko zara zure inguruko lagunakaz. Bestalde, inbertsio bat egiteko dirua eskatuko dizute. Aztertu on do aldeko zein kontrako argudioak.




Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Maitasun-kontuetarako sasoi egokia izango duzu hemendik aurrera. Halere, osasunari dagokionez, makal sentituko zara egunotan.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Maite duzun norbait hurbilduko zaizu, bere tristuraren arrazoiak kontatzera. Eutsi penari eta nahigabeari, eta egin ahalegina laguntzen.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Eskuzabaltasuna teoriatik praktikara erateko garaia heldu zaizu. Laguntza eskatuko dizute eta sakrifizioen bat edo beste egitea egokituko zaizu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Harremanik gustagarrienak betiko lagunakaz izango dituzu egunotan. Ez izan lotsarik, utzitakoa bueltan eskatzeagatik.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ondasunak ez dira betiko, ez zaitetz tematu dena gordetzen. Egin itzazu aldaketak zure bizitzan pozik egon gura baduzu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Besteen alderik onena ikusteko joera sentituko duzu datozen egunotan. Beti ez duzu asmatuko, baina hobeto biziko zara horrela.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Harreman pertsonaletan, egoera gatazkatsu batean sartzeko aukera guztiak dituzu, orain arteko jarrera aldatu ezean.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Osasuntsu egongo zara, baina horretarako zure burua jagon behar izango duzu. Sendiagaz diru-kontuak konpontzeko garaia heldu da.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Duda-mudan zabilta azken boladan, erabakirik hartu ezinean. Patxadaz hartu eta sakon pentsatu: on do hautatuz gero, ez zara damutuko.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Besteek zu errespetatzen zaituzten zeure eskubideak aldarrikatzeko beharra izango duzu. Ez zaitetz gera bide erdian.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Arreta gehiago ipini behar izango duzu aurrerantzean egingo dituzun kontuetan. Alternatiba, hainbat lagunegaz haserretzea litzateke.



Ikurrina dantzan

Berangoko Simon de Otxandategi dantza-taldeak ikurrinaren aldeko hainbat ekimen egin zituen 1976an. Orduko protagonistei gorazarre egingo diete urriaren 21ean, barikuan, Berangoko pilotalekuan antolatuko duten ekitaldian.

IKER RINCON MORENO

Frankismo garaian euskaraz berba egitea debekatuta zegoen, eta euskal kulturaren inguruko edozein ekintza legez kontratatzat jotzen zen. Hori dela-eta, euskararen eta euskal munduaren inguruko edozein ekintza klandestinitatean egiteko beharra zegoen. Hala ere, diktadura indarra galtzen joan heinean, hazten hasi ziren euskal kulturaren kimuak Euskal Herriko txoko askotan.

Franco hil ostean, demokraziaren aro berrira sartzeko trantsizio politikoaren prozesuan sartu zen Espainia, baita Hego Euskal Herria ere. Ostera, diktadorea hil eta hurrengo urte bietan, oraindik ere hainbat ikur publikoki erakustea ilegaltzat jotzen zen, berbarako ikurrina. Legez kanpo utzi zuen ikur hori hasiera-hasieratik frankismoak, eta diktaduran debekatuta egon zen ikurrina kaleratzea Hego Euskal Herrian, 1977ko urtarrilaren 19ra arte. Egun horretan ikurrina legezkatu zuen Espainiako legediak, eta Euskal Autonomi Erkidegoko bandera ofizialtzat hartu zuen.

Trantsizio garaian, frankismoaren azken urteetan loratutako gizarte-mugimenduek lanean ziharduten, errepresioaren gaintik, gure kultura eta ikurrak aldarrikatzeko, eta biziki gura zuten askatasunaren alde. «Garai horretan denok ginen bat, helburu komuna genuen», azaldu du Berangoko Simon de Otxandategi dantza-taldeko presidente Iña-

ki Gonzalezek. Euskal kulturaren alde urte luzez lan egin duen eta beharrez segitzen duen taldeetako bat da Berangoko Simon de Otxandategi. Gerraostean sortu zen taldea, 1943an; ordutik hona, modu

Ikurrina legez kanpo zegoen; horregaz dantzatu zuten lehenengo aldian, jende askok ospa egin zuen

etengabean jardun dute dantzan, euskal kulturaren alde, euskal izaera bultzatu guran. «Taldea kulturala gara, eta Euskadiren aldarrikapenagaz lotutako edozeregaz, txikia bada ere, gure ekarpena egiteko prest egon gara beti», dio Gonzalezek.

Ikurrina legezkatzeko bultzada

Hala, besteak beste, ikurrinaren ofizialtasunaren alde borrokan ibilitakoa da Berangoko Simon de Otxandategi taldea. Franco hil eta hurrengo urtean, 1976an, ikur horren aldeko ekimen ugari egon ziren han eta hemen, eta horietatik entzutetsuena Inaxio Kortabarria eta Jose Angel Iribar futbolariak ikurrinagaz egindako agerraldia izan zen, Donostiako Ato-

txa futbol zelaian. Urte hartako abenduaren 5ean, Erreala eta Athletic Club taldeen arteko partidaren, ikurrina eskuetan zutela irten ziren zelaira talde bietako kapitainak. Hala ere, hori ez zen izan ikurrinaren lehenengo agerraldi publikoa, inondik inora.

Iñaki Gonzalezek dioenez, Simon de Otxandategi dantza-taldeak ikurrinagaz egin zuen agerraldia, lehenengo aldiz, Berangoko Santo Domingo jailetan, 1976ko abuztuaren 4an. «Ikurrina legez kanpo zegoen oraindik, eta horren aldeko bultzada bat eman beharra zegoela uste genuen». Hala, jaietako egun handian, Meza Nagusiaren ondoren, udalerriko landa jendez lepo zegoela aprobetxatuz, ezkutuan ondo gordetako ikurrina atera eta horregaz dantzatzea erabaki zuten. «Taldekide den-denek ez zekiten zer egingo genuen, gizona bakoitzak bere bakoitzak ez zekiten zer egingo genuen, gizona bakoitzak bere bakoitzak ez zekiten zer egingo genuen, gizona bakoitzak bere bakoitzak ez zekiten zer egingo genuen...». Landa batutako herritarrek harrituta bezain ilusio handiz ikusi zuten urte luzez debekatuta egondako bandera; baina, ikurrina atera eta bost minutu-ra, Getxoko kuarteleko guardia zibilak agertu ziren, eta zelaian batutako auzokide guztiek galapan ospa egin zuten. Gonzalezek gogoratu duenez, «dantzariak bakarrik gelditu ziren, zur eta lur, beldurrez, guardia zibilek zer egingo itxaroten». Getxoko Guardia Zibilaren sarjentua hurreratu zen bertara, eta Jesús Iturregui Berangoko alkateagaz batu zen. Une hartan deitu zuten Iñaki Gonzalez, dantza-taldeko presidentea baitzen. «Oso urduri joan nintzen euren gana, atxilotuko gintuztela uste nuelako. Baina alkateak esan zuen 'ikus, gazteak dira; koitadu hauek ez dakite ezta zer egiten duten ere'. Hala de-



Goian, ezkerrean, ikurrinagaz dantzatu zuten lehenengo aldia, 1976ko abuztuaren 4an. © SIMON DE OTXANDATEGI TALDEA

fendatu ginen, eta ez zen egon inolako errepresiorik gure aurka», birgogoratu du.

Guztira, 12 mutilek dantzatu zuten egun hartan ikurrinagaz, Berangokoak eta inguruko herrieta-koak. Gazteenak 15 urte zituen, eta horien ausardia omentzeko asmoz, ekitaldia egingo dute barikuan, hilaren 21ean, Berangoko frontoian. Iñaki Gonzalezek iragarri duenez, egun horretan bertan jakinaraziko dituzte dantzari haien guztien izen-abizenak. Modu berean, ekintza horrez gainera, orain dela 40 urte egindako beste ekimen bi ekarriko dituzte akordura. Izan ere, Berangoko landan ikurrinagaz egindako ekintzaren ostean, dantza-taldeak askotariko ekimenak antolatu zituen, baina ia gehienak pribatuan. Publikoki egindako hurrengoa Getxo Kirol Klubak Iribarri omenaldia egiteko ekitaldian izan zen, urte bereko urri hasieran. «Horretan Errealeko eta Athletic Club taldeetako beterranoek jokatu behar zuten. Partida horren deskantsuan dantza egiteko eskatu ziguten, eta hala egin genuen, ikurrina eta guzti», azaldu du Gonzalezek. Akorduan duenez, norgehiagoka Fadurako zelaian izan zen, eta milaka lagun hurreratu ziren omenaldira. Giroa oso politikoa zen, askotariko pankartak ikusi eta oihuak entzun ziren bertan. «Iribarrek egin zuen lehendabiziko sakea... baina ikurrinagaz dantza egin genuenean giroa egundokoa izan zen, aldarrikapenez beteriko oihuek burrunba izugarria sortu zuten». Dantza-taldeko presidentek oroitu duenez, dantza egin eta gutxira Guardia Zibila zelaiaren kanpoan zegoen, euren zain. Hala ere, dantzariak aldatzeko arropa gordeta zeukaten publikoaren artean, eta modu horretan, oharkabean pasatzea lortu zuten. Baina, po-

lizia militarra publikoaren kontra oldartu zen, «garai zailak ziren ordukoak. Guardia Zibilak egurra eman zuen egun hartan». Apurka-apurka giroa berotzen joan zen, eta Simon de Otxandategi taldekoek kontu horren aldeko beste zerbait egin gura zuten. Hala, bilera baten ostean, ikurrina Berangoko elizaren dorrearen puntan eskegitzea erabaki zuten.

Ekintza 1976ko urriaren 24an egitea erabaki zuten, domeka izan zen. Gauerdia zen, haizea zebilen, euria egiten zuen eta gaua hotza zen. Dorrera igotzeko bidea tximistorratzetik egin behar zuten, «zaha-

Barikuan egingo duten ekitaldian ezagutaraziko dute zeintzuek parte hartu zuten ekintza horietan guztietan

rra zen, solte zegoen eta txarrantxaz inguratuta zegoen». Halere, ekinez, ezinezkoa zirudiena egitea lortu zuten: 2 metroko luzera eta 1,4 metroko zabale-za zuten ikurrina dorreko puntan eskegi zuten.

Atzera begira ipini eta egun hura ondo akorduan dauka Iñaki Gonzalezek. Ekintza burutu zen egunean bertan ere inguruko lantegi bateko beharginak greban ziren. Hori dela-eta, Guardia Zibilaren jeep bi geldirik zeuden Simon Otxandategiren omenezko bustoaren ondoan, eliza parean; «gure bila zetoze-la uste izan genuen, baina grebagatik zeuden han».

Hurrengo egunean, ikurrina Berangoko punturik gorenean eskegita zegoela, Bilboko Guardia Zibilen kapitaina hurreratu zen bertara. «Suhiltzaileak sartu

gura zituzten, baina kamioia ez zen bidetik sartzen», oroitu du dantza-taldeko presidentek. Ekimena hain arrakastatsua izan zen, udalerriko batek txantxetan zera esan zuela: «ETAko hauek *la ostia* dira; Guardia Zibila *jeepean*, eta ETAkoak helikoptero eta guzti ikurrina ipintzeko!». Kontuak hala, euskaldunon banderak Berangoko elizaren dorrearen puntan eskegita iraun zuen hainbat hilabete, erori zen arte.

Ekintzaileei gorazarre egiteko ekitaldia

Ikurrinaren aldeko hiru ekintza horiek gogoratzeko eta horietan parte hartu zuten guztiak omentzeko asmoz, ekitaldi berezia egingo du Simon de Otxandategi taldeak barikuan, hilaren 21ean, Berangoko frontoian. Hitzordua 20:00etan ipini dute, eta, bertan, den-dena zelan egin zen kontatzeaz gainera, garaiko argazkiak eta grabazioak erakutsiko dituzte. Hala-ber, ekintza horietako protagonista guztiak zeintzuek izan ziren jakinaraziko dute, «izen eta abizenakaz».

Iñaki Gonzalezek nabarmendu duenez, Simon de Otxandategi Berangoko talde kulturala da, erdi-profesionala, baina baita aldarrikatzailea ere, «laguntzeko prest gaude beti. Dantzatu eta kantatzeaz gainera, laguntzeko ere bagaude». Izan ere, gaur egun, Simon de Otxandategi hiru taldek osatzen dute: joaldunak, dantza-taldeak eta abesbatzak. Eta Gonzalezek dioenez, talde horietakoren batean parte hartu duten guztiena da Simon de Otxandategi, «elkar-te bat ez du egiten pertsona bakar batek, baizik eta horretan une batean edo bestean parte hartu duten guztiek». Era berean, euskal kulturaren alde lan egiteko prest dagoen edonork parte har dezakeela adierazi du, «ez dugu inor ere baztertzen». ◀

Flashback

Barrikako neskatilak, eskolan, 1933 inguruan

Carmen Olarra da umetxoena, argazkian; hiru urte inguru izango zituen. Gaur, 86 urteagaz, kontatu digunez, argazkian agertzen diren atetik bera bakarrik dago bizirik; berak dakiela behintzat. Olarrak akorduan bizi-bizi dauzka oraindino ikaskideetako asko, eta Caridad de Santa Ana neskatilen eskolako egunak. Argazkiko denak barrikotarrak zirela dio, eta eskolan batzen zirela 3 urtetik 14 urtera artekoak. Ikasturte amaierako argazkia da, eskolako atearan aurrerantzerako. Eraikina, ostein, udaletxea izan zen eta, gaur egun, Elorduy egoitza dago bertan.

Argazkian: ① Maritxu, ② Juanita Zarate ③ Andresa Marín, ④ Kontxa Uriarte, ⑤ Patxike, ⑥ Marga, ⑦ Encarna Pastor, ⑧ Lidia, ⑨ Nieves Mentxaka, ⑩ Maria Jesus Mentxaka, ⑪ Juanita Mentxaka, ⑫ Edeli Unibaso, ⑬ Isabel Torrontegi, ⑭ Eli Ripalda, ⑮ Carmen Olarra, ⑯ Pilar Ripalda, ⑰ Miren Ansoleaga, ⑱ Amelia, ⑲ Julia Peña eta ⑳ Miren Beitia.



© MARGARI GANGOITIK UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora

TESTUA

Aitor Fdez. de Martikorena Rodríguez

DOINUA

Euskal Herriko lur maite hartan

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Aurkia eta ifrentzua

Armintzan egin da, ez aspaldi,
ekimen zinez gozoa:
putxera arteko lehiaketagaz
biztu zan herri osoa.
Bertan ikusi ziran batera
poza eta frakasoa...
Baina nork daki jazo ete zan
lehien ohiko arazoa:
bai, putxeretan bere gertatu
leiteke «putxerazoa»!

Holakoetan jardun aurretik,
ondo pentsatu, laguna.
behar handia eskatzen dabe,
edonor daiteke una:
bezperan-edo dana erosi,
jarrita diru komuna;
goiz horretantxe, kea, beroa,
kezka, urduritasuna...
Eta, ganera, garaitu ezean,
eztarrian behazuna.

Baina danak dau bere alde ona,
nire ustez, duda barik;
putxeren zaleek badaukie
gozatzeko aukerarik:
hamaiketako, ardauro bapoak,
lagunartean bildurik,
alai, poz-pezik ibiltzen dira
lanean dabilzalarik.
Gogozko toki orotan ez ei
da egoten aldaparik.



Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua